

Elkarrizketa
politikoak

MALLABIA



"Goitondoko industrialderako sarrera-irteeren proiektuko obrak udaberrian hastea da gure asmoa"

Mallabia • Igor Agirre Mallabiko alkatea dioenez, legegintzaldiko egitasmo nagusietariko bat Goitondoko industrialdekoa da. Era berean, herrian eragina duen Eibarko Kirol Hiria obrei buruz ere berba egin du. • 2-3

Fantasiaren Azoka hasi DA!

Durangoko Azokaren 58. edizioak eguaztenezan zabaldu zituen ateak. 257 erakusmahai egongo dira Landako Gunean, eta bertan 950 nobedade aurkeztuko dituzte: 689 liburu, 179 disko eta musika produktu, 44 aldizkari eta bestelako 40 lan. Domekara arte egongo da zabalik. • 24



Tetsuro Maedaren Txispa jatetxeak bere lehenengo Michelin izarra lortu du

Atxondo • Tetsuro Maedak maiatzean zabaldu zuen jatetxea, Axpen. Aurretik, hamar urtez Etxebarri jatetxean lan eginikoa da, eta oso eskertuta dago Bittor Arginzonizegaz. • 6



Hipotesia baieztatu dute: hiru hobi komun agertu dira Zornotzako hilerrian

Zornotza • Aranzadi Zientzia Elkarteak gerra zibileko 20 bat gudariren gorpuzkiak topatu ditu kanposantuan. Identifikazio lanekin hasteko, Gogora Institutuak DNA laginak ematera deitu ditu gerra sasoiaren senitartekoren bat galdu zuten herritarrak. • 5





Igor Agirre Barrientos

Mallabiko alkatea

MALLABIA | 1972

“Eibarko Kirol Hiriaren proiektua oso ona izango da Mallabiarentzat”

Eibar taldearen Kirol Hiria Mallabian egiteak onura ekarriko dio herriari, Igor Agirre alkatearen aburuz. Bestalde, legegintzaldiko proiektu garrantzitsu legez Goitondoko industrialderako sarbidea egitea azpimarratu du, baita auzoetako saneamenduagaz hastea ere

MALLABIA • JONE GUENETXEA

Igor Agirrek bere hirugarren legegintzaldia hasi du Mallabiko alkate legez. 2024rako eskolan aerotermita sistema ezartzea izango da inbertsiorik nabarmenena.

Zure hirugarren legegintzaldia hasi duzu. Zer moduz?

Zortzi urte joan dira dagoeneko udalean alkate karguan hasi nintzenetik. Orain beste legegintzaldi bat hasi dugu, baina niretzat jarraipen bat da. Proiektuagaz aurrera egiteko modu bat da.

Zeintzuk dira legegintzaldiko erronka nagusiak?

2022an hasitako proiektuak amaitu gura ditugu. Izan ere, pandemiagaz inbertsioak etenda geratu dira. Hauteskunde programa bat dugu eta bete egin gura dugu. Proiektu garrantzitsuak ditugu.

Alde batetik, Mallabiko auzoen saneamenduagaz hastea. Badugu aurreproiektu bat. Bestalde, orain hilabete Imanol Pradales hemen izan zen Berano, Arandoño eta Goitondoko industrialderako sarbide berriak egiteko proiektua aurkezten. URAGaz ere proiektu bat dugu, Goitondon saneamendua sartzeko hodi biltzaile batez Ermuraino. Kultur arloan ere zer egin dezakegun landu gura dugu, jendea Mallabian geratu dadin.

2024ra begira, zein egitasmo duzue esku artean?

Aurrekontuak abenduan plenora eramango ditugu. EH Bilduri zirriborroa pasatu diogu, ekarpenak egin ditzan. Datorren urterako aurrekontuan, %10 inbertsioa da, eta gainerakoa gastu finkoa. Inbertsio atalean, proiekturik handiena eskolan aerotermita sistema ipintzea

izango da. Gaur egun gasoila dugu. Proiektua prest dago. Soberakina-gaz beste gauza batzuk egingo ditugu, eta saneamenduagaz hasiko gara, faseka.

Bizkaiko Foru Aldundiak radarrak ipini zituen errepidean, Trabakua inguruan. Zein balorazio egiten duzue?

Mallabiarentzat oso neurri ona izan da. Errepide horretan istripu asko egon izan da eta jendea abiadura handian joaten zen. Arazo bat dugu, bidea zeharkatu egin behar delako Zengotitan autobusa hartzeko. Lau erreil daude, eta gatxa da. Radarragaz asko igarri da kotxeen abiadura moteldu egin dela leku horretan.

Orlan Isoird Berrizko alkateak dio radarrak bere herriraino heldu beharko lirakeela.

Orlan Isoird Berrizko alkateak

eta biok egin genuen trafikoaren abiadura jaisteko neurrien eskaera. Baina Berriztik Trabakuraino neurriren bat hartuko zutela pentsatu genuen. Azkenean, Mallabiko zati batean radarrak ipini dituzte eta Berriz neurri horretatik kanpora geratu da. Ereñan, esate baterako, arrisku handia dago eta logikoa da radarrak tarte zabalago batean ipini gura izatea. Badakit zati luzea dena, baina radarrak zati bitan ipini daitezke behar bada.

Mallabiko proiektu handi bat Eibar futbol taldearen egitasmoa da.

Egitasmo hau 2018-2019an hasi zen martxan. Bazkideek erabaki zuten Mallabian egin gura zutela proiektua. Sasoi hartan, Plan Orokorra aldatzen hasi ginen. Prozesu luzea izan da eta bost urte eman ditugu tramitazio hori egiten. Dagoeneko Plan Orokorra aldatuta daukagu eta eman dugu baimena Kirol Hiriaren proiektuari ekiteko.

Zer dago eginda eta zer falta da egiteko?

Kirol Hiriari gehituriko azpiegiturak egin behar dira lehenengo. Kirol Hiria zelaiak izango dira, baina, horregaz batera, Areition biribilgune bat egingo da, eta bidegorri bat herriguneraino. Hortik hasi dira,

eta, horren ondoren, Kirol Hiria egingo dute. Arduradunek esan dutenez, urte bi beharko dituzte obrak egiteko. 2025 amaieran edo 2026 hasieran egongo litzateke prest.

Zein azpiegitura eraikiko dute?

Bost futbol zelai eta harmaila handi bat egingo dituzte. Harmailen azpian bulegoak, aldagelak eta horrelakoak egongo dira. Eraikin zentral bat ere egongo da, taberna txiki batez, eta baita beste instalazio batzuk ere.

Ona izango da Mallabiarentzat?

Bai, ona izango da, mugimendua sortuko duelako. Jendea herrigunera bajatu daiteke kafe bat hartzera, esate baterako.

“Gazteek aukera gutxi dute herrian geratzeko. Etxebizitza gutxi dago salgai, eta daudenak oso zaharrak dira”

“Dagoeneko Plan Orokorra aldatuta daukagu eta eman dugu baimena Eibarren Kirol Hiriaren proiektuari ekiteko”

Urtia eta Goitondoko industrialdeetara joateko, kamioiak Ermuko herrigunetik pasatzen dira. Saihesbidea egitea eskatzen duen plataforma bat dago Ermuan. Momentu honetan, zein da egoera?

Aldundiak esan du saihesbidea beste fase bitan egingo duela. Orain fase bat egin du, Areition, tunela eta biribilgunea. Beste fase biak 2030ean amaitzea aurreikusten dute. Guretzat oso garrantzitsua da saihesbide hori egitea. Bestela, arazoa Ermuak dauka, kamioiak handik pasatzen direlako.

Batzartu zarete plataformako ki-deekin?

Bai, egon ginen plataformakoekin. Aukera bi proposatzen dituzte kamioiak Ermutik ez pasatzeko. Alde batetik, kanposantu ondotik Urtiara joatea. Bestetik, Trabakutik igo eta bajatzea. Nire iritziz horrek ez du zentzurik. Ea zelan azaltzen diozun enpresariari 30 kilometro gehiago egin behar dituela. Gainera, arazoa beste herri batzuetara eramaten duzu, eta hori ez da konponbidea. EAJk eta EH Bilduk oharra atera genuen maiatzean, planteamendu horregaz ez gaudela ados esateko. Eurei ere jakinarazi genien hori. Baina

saihesbidea derrigorrezkoa da, horretan ados gaude.

Goita auzoan ere auzokideak kezu dira hainbat kamioi eta ibilgailu pasatzen delako bertatik. Zein arazo dago hor?

Jendea Trabakutik doa eta, Goitondora lanera joateko, kamioien kasuan, GPSak hortik bidaltzen ditu. Guk kartelak ipini ditugu debekatuta dagoela adierazteko, baina, hala ere, GPSaren arazoa dago. Orain, kamioi gutxiago joaten da hortik. Kotxeak ere hortik joaten dira, arinago heltzeko lanera. Gatz da hori konpontzea, baina guk seinaleak ipini ditugu.

Auzokideekin batzarrak egin dituzue aurrekontuetara begira.

Zortzi urte dira batzar hauek egiten ditudana. Urtero auzoetara joaten gara, eta baita herrigunera ere. Jendeak inguruan dituen arazoak kontatzen dizkigu, eta harrera ona izaten dute. Auzoetara joaten gara azalpenak ematera eta ekarpenak jasotzera, eta auzokideek ondo baloratzen dute hori. Auzo bakoitzekoekin zerrenda bat egiten dugu, hurrengo urtean zehar konponketak egiteko. Askotan mantentze-lanak izaten dira.

Goitondoko industrialdeko sarre-irteeraren proiektua obra handia izango da.

Sarrera-irteerak ez daude batere

ondo, eta istripu asko gertatu da auzoan. Puntu beltz bat da. industrialdera sartzeko ere ez dago ondo. Aldundiagaz hitzarmena sinatu dugu. Guk milioi erdi ordainduko dugu, eta Aldundiak 3,4 milioi euro. Dagoeneko hasi da lizitazioa, eta obrak udaberrian hasi da asmoa. Bestalde, hor ondoan hodi biltzailea dago sartzeko, Goitondotik Ermuraino. Aldundiagaz eta URAgaz berba egiten gabilta ea obra biak koordinatu ditzakegun. Obra batek 14 hilabeteko iraupena izango du, eta besteak 12 hilabetekoa. Leku horretan trafiko handia dabil obra bi egiteko.

Itzuliaren etapa bi Mallabian amaitu ziren iaz. Zein aurreikuspen duzue hurrengo urteetarako?

Itzuliko arduradunekin egon ginen, berriro ere lasterketa hartzeko. Aukera hori mahaigaineratu dugu, baina oraindik ez dakigu ezer. Uste dut datorren urtekoa lotuta daukatela; beraz, 2025era begira izango litzateke.

Baduzue etxebizitza arazorik Mallabian? Gazteek badute aukerarik herrian geratzeko?

Gazteek aukera gutxi dute herrian geratzeko. Etxebizitza gutxi dago salgai, eta daudenak oso zaharrak dira. Gure plan orokorraren barruan, etxebizitzak egiteko aurreikuspena dugu. Kontua da erai-



kitzaileak ez direla herri txikietara etortzen. Guk ere arazo batzuk ditugu lurra eskuragarri ipintzeko. Gai hau programaren barruan daukagu eta guretzat lehentasun bat da. Bestela, gazteak Berrizera edo Zaldibarrera joaten dira.

Ondarearen balioa nabarmentzeko proiektuak martxan ipini duzue.

Mantendu egin gura dugu orain arte ondarearen berreskurapenerako egin duguna. Bide asko men-

dian dago, sasitza kendu behar da eta kostatu egiten da. Auzoetako batzarretan beste pista bi agertu dira. Bat Beranotik Arteta ermitara doa. Ibilbide osasungarrien barruan dago. Bestea GR-Mikeldiren parte da, Zengotititik Aitxuraino. Bide horiek atondu gura ditugu. Bide horiek mantentzea nekoso da, luzeak direlako. Bestalde, Zengotitako garbitegia eta Gereako ur-jausia eginda daude. Perratoki

bat ere badaukagu, behien zein idien ferrak garbitzeko, Osma auzoan. Partzela hori erosi gura genuke, konpontzeko. Horretarako, hitzarmen bat sinatu gura genuke.

Eta Oizko Parke Megalitikoa?

Oizko Parke Megalitikoaren proiektua Berrizko Udalagaz elkarlanean lantzen gabilta. Orain hainbat prospekzio egiten gabilta Mallabian, beste leku batzuetan ere zeozer egon daitekeelakoan.



Okm:
batzen gaituen
distantzia

abantaila
guztiak
hemen >



Egin zaitez anbotokide!

**30€
urtean!**

**anboto
kide**

'Etiketa Berdea' aurkeztu dute Durangon, mendi lasterketa etikoen aldeko manifestua

Mendiko probek hartu duten norabidearen eta masifikazioaren inguruan hausnarketa sorraraztea eta proba etiko batek bete beharko lituzkeen gutxienekoak jaso dituzte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Mendi lasterketak antolatzeaz arduratzen diren kide batzuek eta lasterketetan parte hartzen duten hainbat korrikalarik egitasmo bat hasi dute: *Etiketa Berdea. Mendi lasterketa etikoen aldeko manifestua*. Probek harturiko "norabidea eta masifikazioa" de-

la-eta ekin diote egitasmoari, hain zuzen ere, "elkarbizitzan, berdintasunean eta jasangarritasunean" oinarrituriko lasterketak sustatzeko. Hori dela eta, Euskal Herrian egiten diren mendiko probak balio horien barruan antolatzera deitu dute. Jakinarazi dutenez, dagoeneko

30 baino gehiago dira *Etiketa Berdea* zigilua lortu duten Euskal Herriko lasterketak.

Egitasmoa azaroaren 25ean aurkeztu zuten, Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekan. 40 bat lagun batu ziren bertan. Atari digital bat ere sortu dute: *etiketa-berdea.eus*



'Etiketa Berdea' egitasmoaren sustatzaileek agerraldia egin zuten azaroaren 25ean Bizenta Mogel Bibliotekan.



Izotz pistaren artxibo irudia.

Landako Guneko izotz pista hilaren 22an zabalduko dute

Material sintetikoaz eginiko pista barik, izotzekoa izango da. Urtarrilaren 7ra arte egongo da erabilgarri

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak izotz pista atonduko du Landako Gunean, Gabonetako ospakizunen testuinguruan. Udal iturriek ohar batean azaldu dutenez, iazko "pista sintetikoak izan zuten harrera txarra" dela eta, aurten "naturala" muntatuko dute. "Izotz pista era-

kargarria da, adin desberdinetako pertsonak entrenitzeaz gainera beste udalerrri batzuetako jendea ere badatorrelako, erosketak egiteko aprobetxatzeko, bide batez", esan zuen Jessica Ruiz alkateordeak. Azpiegitura abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra egongo da erabilgarri.

Durangoko aurrekontuek "gai sozialekiko konpromiso falta" dutela dio EH Bilduk

Subiranisten iritziz, gobernu taldeak proposaturikoak "ez die herritarren beharri zehar erantzuten". Hezkuntzarako eta merkataritzarako partidak "jai" egingo direla diote

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko gobernu taldeak udaleko aurrekontu proposamena aurkeztu zuenetik egun batzuetara, EH Bilduk bere iritzia plazaratu du. Koalizio subiranistaren esanetan, gobernu taldeak proposaturikoak "konpromiso falta" agertzen dute "arlotan sozialari" dagokionez. Hezkuntzara, Kirolera, Ume eta Gazteen politiketara, Mugikortasunera, Ingurumenera eta Merkataritzara bideraturiko diru

partidak hurrenez hurren "%39,47, %17,45, %7,82, %10,94, %35,59 eta %5,65 jai" direla kritikatu dute. Era berean, "iaztik gehien igo den partidatariko bat goi kargudunena (%25 gehiago)" izatea ere kritikatu dute. "Horrek erakusten du zein urrun bizi diren gure bizilagunen eguneroko arazoetatik", adierazi du koalizioak ohar batean.

Guztira, koalizioak 5 zuzenketa aurkeztu ditu, 381.300 euroko kopuruagaz. Eurretari bat

Soloko elkarteko baserriarrek sinatuta zegoen hitzarmena "berreskuratzea" da, gobernu taldeak "ezabatu" egin baitu hitzarmen hori, euren esanetan. EH Bilduk aurkezturiko beste zuzenketa batzuk honako hauek dira: Txibitenan frontoi ireki bat eta erabilera anitzeko kantzak egitea, herriko hainbat puntutan desfibriladoreak ipintzea, energia komunitateak sortzea eta hezkuntza komunitatea sustatzea.

Herbehereetako ikasleek bizikletaren erabilera aztertuko dute Durangon

Lau hilabeteko proiektuan parte hartuko dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak eta Bredako Zientzia Aplikatuak Unibertsitateak (Herbehereak) jasangarritasunari begirako lankidetzara hitzarmena sinatu dute. Akordio horren arabera, unibertsitateko ikasle talde batek Durangoko mugikortasunari, hirigintzari eta iraunkortasunari loturiko proiektua garatuko du lau hilabetez.

Ikasleek astebeteko egonaldia egin dute Durangon, proiekturako informazioa batzen. Aurretik, bizikleta partekatze sistema bat ipintzeko aukerak aztertuko dituzte. Bredako Unibertsitateko ikasleek apirillean aurkeztuko dituzte proiektuaren emaitzak, fakultatean. Horren ondoren, azterlanak Durangoko Udalaren eskura utziko dituzte, horiek aplikatzeko asmoz.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko abenduaren 7a
22. urtea - 960. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Gerra zibileko 20 bat gudariren gorpuzkiak topatu dituzte Zornotzako hilerrian

Aranzadik topatu ditu, Gogora Institutuaren eta Zornotzako Udalaren babesagaz



Gorpuak hiru hobi komunetan antolatuta topatu dituzte.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Aranzadik gerra zibileko 20 bat gudariren gorpuzkiak topatu ditu Zornotzako hilerrian. Hilerriko atetik sartu eta eskumatara dagoen zelai karratu batean topatu ditu, gerra zibiletik hona inor lurperatu ez den eremuan. Gorpuzkiak hiru hobi komunetan antolatuta topatu dituzte, eta litekeena da bakoitzak jatorri desberdina izatea. Lourdes Herrastik, desobiratzea zuzentzen dabilen Aranzadiko kideak, zehaztu duenez, litekeena da gudariak Zornotza inguruko mendi eta gudu zelaietatik eta herrian gerra garaian zegoen odol-ospitale militarretik ekarrikoak izatea. 1937ko gorpuak direla zehaztu du, urte hartako apiril eta maiatz inguruan borroka ugari egon zelako Zornotzan.

Oraingoan, gizonezkoen gorpuzkiak topatu dituzte. "Hobi komunetarikoa batean topatu ditugun gorpuek arropa gutxi dute, eta haietariko batek hankan anputazio bat duela ikusi dugu. Horregaz ondorioztatu dezakegu multzo horretako gorpuak ospitaletik ekarrikoak direla", azaldu du Herrastik. "Beste multzo bateko gorpuek arropa dute, botak dituzte, uniformetako txapak topatu ditugu. Ondorioz, borrokan hil eta hona ekarri zituztela pentsatu dezakegu. Gainera, garai hartako herritarren lekukotasunak horixe diote, gudarrien gorpuak kamioietan ekarri zituztela hona", gaineratu du. Aurreikuspenen arabera, Aranzadiko kideak domekara arte egongo dira Zornotzako desobiratze lanak egiten. Herrastik aitortu du "esperotakoa baino gorpu gehiago" topatu dutela.

DNA, plakak eta identifikazioak

Aurkikuntzaren garrantzia azpimarragarria da, orain arteko hipotesia baieztatu egin delako. Eta

garrantzitsua da aurkikuntzagaz baieztatu egin direlako Zornotzako herritarrek garai hartakoei buruz eman izan dituzten testigantzak. Datozen egunetan gorpuzkiak desobiratzen jarraituko dute, baina aurrerantzean ikerketaren beste atal inportante bat ipiniko dute martxan: gorpuek identifikatu, familiako kideekin hartu-emanetan ipini eta gorpuzkiak duintasunez bueltatu. Hori dela eta, Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak DNA lagin bat ematera deitu ditu desagerturikoen familietako kideak. Lagin hori Gogora institutuaren bitartez egin dezakete, balizko identifikazioak bideratzeko: "Hemendik aurrera, hildakoak identifikatu ahal izatea espero dugu, euren familiei emateko gero. Horregaitik, euren senitartekoren bat Zornotzan edo inguruko mendietan hil zela sumatzen duten familia guztiei dei egiten diet euren lagin genetikoak Gogora Institutuari eman diezaioten", adierazi du sailburuak.

'Kultur Giltzak' ekitaldia egingo dute zapatuan

Sarek deituta, hainbat kultur sortzailek bat egingo dute 'Konponbiderako Giltzak' manifestuagaz Durangon

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Sarek, euskal preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideen aldeko plataformak, egitasmo bat egingo du Durangon, *Konponbiderako Giltzak* dinamikaren barruan: *Kultur Giltzak*. Bertan, sortzaileek eta eragile kulturalak atxikimendua adieraziko diote *Konponbiderako Giltzak* manifestuari. Ekitaldia 13:00etan izango da, Landako Gunearen alboan.

Hori baino lehenago, 10:00etatik aurrera, argazkiak aterako dituzte dinamikara baturiko kultur-gileekin. Honako hauek batu dira egitasmora, besteak beste: Amets Aranguren, Igor Elortza, Lide Hernando, Jakoba Errekondo, Unai Iturriaga, La Furia, Gorka Armendariz, Xabier Mendiguren, Joseba Beramendi *Exprai*, Maitane Azurmendi, Ines Osinaga eta Porrotx.

Durangaldeko paisaiari buruzko iritzia jasotzeko tailerrak

Jardunaldiak abenduaren 11n eta 13an egingo dituzte

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko Foru Aldundiak *Durangaldeko Paisaiei Begire* proiektua ipini du martxan, eskualdeko paisaiaren katalogoa egin eta paisaia zelaz hobetu daitekeen aztertzeke. Tailerrok eskualdeko sei udalerritan egingo dituzte, abenduaren 11n eta 13an.

Abenduaren 11n herri haueetan egingo dituzte: Zornotzan, (Zelaieta zentroko kontzertu gelan, 11:30etik 13:30era), Zaldibarren (Liburutegi Zaharrean, 16:00etatik 17:30era) eta Durangon (Intxaurren, 18:30etik 20:00etara). Eta abenduaren 13an udalerritan egingo dituzte jardunaldiak: Berrizen (Kultur Etxean, 10:00etatik 11:30era), Abadiñon (Errota Kultur Etxean, 12:30etik 14:00etara) eta Elorri (Iturri Kultur Etxean, 16:00etatik 17:30era).

Antolatzaileek azaldu duteenez, "herritarrek etorkizunean izan gura luketen paisaia aztertuko da, besteak beste, tailerretan", helburu horiek lortzeko "zeintzuk ekintza egin litezkeen" aztertuta.



NEVERS IKASTETXEAK ESPAZIO BERRI BATEKIN EMAN DIO HASIERA IKASTURTEARI



0 eta 16 urte bitarteko ikasleak hartzen dituen Durangoko ikastetxeak irakasleen etengabeko prestakuntzaren eta metodologia aktibo eta berritzaileen aldeko apustua egin du

Haurtzaindegia eraikina berritu ondoren, Nevers Ikastetxeak bere instalazioak eta ikastetxeko hezkuntza-metodologia etengabe hobetzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du. 2023-2024 ikasturte honetan, 4 eta 5 urteko ikasleek espazio berriak estreinatu dituzte.

Espazio berri hauek naturalagoak, irekiagoak eta argitsuagoak dira, haurtzaindegia eraikina bezala. David Quero ikastetxeko zuzendari berriak adierazi duenez, "helburua haurrek beren etxeetan sentitzen duten erosotasuna sentitzea da eta, atseginak izateaz gain, espazioak hezkuntza-elementu bat gehiago izatea".

Bere garaian, familiek argi eta garbi zeukaten instalazioak berritzearen alde egin behar zutela, irakasleek metodologia berritzaileagoak txertatzearekin batera. "Proiektu bidez lan egiteak espazio malguak eskatzen ditu, esperimentatzeko, manipulatzeko eta askatasunez mugitzeko egokiak direnak", azaldu du Haur Hezkuntzako irakasleak. Hori dela eta, espazioek psikomotrizitate-egitura burutsuak

dituzte ere, haurrek ikaskuntzetan aurrera egin ahala, beraien mugimendu-trebetasunak gara ditzaten.

Urtero, familiek lagunduta, ikastetxeko irakasle-taldeak hobetzeko aukerak berrikusuten ditu, ikasleei eta familiei zerbitzu hobea emateko. Aurten, adibidez, eskola-jazarpenaren aurkako KIVA zerbitzua indartu da, iazko ikasturtean hasitako STEAM proiektua finkatu da eta irakasleak formakuntza berriekin hasi dira.

"Helburua eboluzionatzen jarraitzea da, egiten dugun horretan hobeak izateko eta gure familiei zerbitzurik onena eskaintzeko", dio Davidek, eta, gainera, familiei ikastetxera hurbiltzeko gonbita egiten die, eskaintzen duten zerbitzuen berri izateko eta haien lan egiteko modua erakusteko. Horretarako, web orriaz gain (www.neversikastetxea.com), familien eskura jartzen da urte osoko bisita gidatuaren zerbitzua. Hau web orriaren bidez edo zuzenean zentroarekin harremanetan jarrita eska daiteke (946 81 09 46).

NEVERS IKASTETXEA. KONFIANTZAN HAZI ETA HEZI.



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



“Epaimahaikoak ikus-entzuleak direnez, bertsoak adiago entzuten dituztela diote”

Zaparra elkarteak antolatuta, Bertsolari Gazteen Txapelketako finala jokatu dute, barikuan, Mallabiko Herriko soziedadean



MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Leire Uribelarrea, Eider Gallastegi eta Aiala Amesti Zaparrada elkarteak dira. Euren eta beste batzuen artean, elkarte biziberritu dute. Antolatzen duten ekimenetarikoa bat Bertsolari Gazteen Txapelketa da. Finala bariku honetan da, 21:30ean,

Herriko soziedadean. Bertso afarirako txartelak Herriko tabernan eskuratu daitezke.

Zelan joan dira orain arteko kanporaketak?

Leire Uribelarrea: Oso ondo. Lehenengoan Unai Izagirre eta Aissa

Intxausti sailkatu ziren. Bigarren saioa parekatuagoa izan zen, eta Gorka Pagonabarraga eta Ibai Amillategi sailkatu ziren. Beraz, finala lau horien artekoa izango da.

Eider Gallastegi: Bigarren saiora jende gehiago batu zen eta pozik gaude horregaitik.

Aiala Amesti: Aurtengoa txapelketaren bosgarren aldia da. COVID sasoian parentesi bat egon zen eta orain berreskuratu egin dugu. Hutsune hori igarri egin da, egia esanda. Hasierako aldietan indar gehiago zuen. Apurka-apurka orduko harrera berreskuratzea dugu helburu.

Txapelketako berezitasun bat da ikus-entzuleek osatzen dutela epaimahaia.

E.G.: Bai. Epaimahaikoak ikus-entzuleak direnez, bertsoak adiago entzuten dituztela diote: errimak, hankaluzak, hankamotzak...

Zaparrada elkarteak antolatu duzue ekimena. Zelan biziberritu duzue elkarteak?

L.U.: Herrian bizitasunik ez zegoela ikusten genuen, zeozer falta zela. Herriar talde bat animatu ginen eta elkarte berri martxan ipintzen gabilta. Sei lagun batzen gara beti, baina, gero, laguntzeko prest dagoen jende asko dugu inguruan.

Zeintzuk beste ekimen antolatu dituzue?

E.G.: Zaparrada aurtengo Urriko Jaietan hasi da berri martxan.

Txosna ipini genuen plazan, eta berriro zabaltzen genuen soziedadea. Soziedadeak beti izan du indarra jaietan, eta azkenaldian galtzen zebilen. Hori berreskuratu gura genuen. Oso ondo joan zen, baina kasu honetan ere igarri zen urte batzuetan ez dela soziedadea zabaltzen.

Herrian bizitasunik ez zegoela ikusten genuen, zerbait falta zela. Lagun talde bat animatu ginen eta elkarte berri martxan ipintzen gabilta

A.A.: Hurrengo ekimena Olenzeroen eta Mari Domingiren etorrera da. Guraso elkarteagaz batera, goizean kalejira bat egingo dugu. Ondoren, ohiko ekimenari aldatzeko bat egingo diogu. Umeez gutunak emango dizkiete Olenzeroi eta Mari Domingiri, baina egunean bertan ez dute oparirik jasoko.

L.U.: Aurrera begira, ekimenak sarriago antolatzea da asmoa.

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko arraindegi batek atek itxi ditu. Abenduan beste hainbeste gertatuko da okindegi batez, eta udaberrian harategi bateko arduraduna jubilatuko egingo da. Arrazoi batez edo besteagaitik, geroago eta komertzio gutxiago dago Otxandion, beste herri txiki askotan gertatzen den moduan. "Herri txikiak duten erronkarik handienetarikoa bat zerbitzu horiei eustea da", dio Egoitz Garmendia alkateak. Gauzak horrela, udalak diru laguntza atal berri bat sortu du: alokairuagaz lagunduko diote komertzio bat hartzen duenari edo berri bat zabaltzen duenari. Tabernak ez dira diru laguntza hauetan sartzen, ohiko komertzioak baino ez: harategiak, arraindegiak, janari dendak, okindegiak eta antzerakoak. Komertzioa abenduaren 1etik aurrera zabaltzeko edo hartu dutenek jaso dezakete laguntza, eta 2024 hasieratik aurrera hasi daitezke laguntza jasotzen. Lehenengo urte bietan —24 hilabetez— 400 eurora arte jaso dezakete hilero alokairua ordaintzeko, betiere lokalaren alokairua 650 eurotik gorakoa ez bada. Laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzak udaletxean daude eskuragarri.

Otxandioko Udalak alokairuan diruz lagunduko dio komertzio bat hartu edo berri zabaltzen duenari

Baldintzak betetzen dituztenek 400 eurora arteko laguntza jasoko dute 24 hilabetean lokaleko alokairua ordaintzeko



Komertzioetarikoa batzuk Artekale kalean daude.

Erosketa bonuak

Komertzioetan salerosketan bultzatzeko kanpaina bat ere hasi du udalak. Abenduaren 11n 5.000 txartel banatuko dituzte kanpainan parte hartuko duten hamar komertzioetan. Dendariak bezeroen artean banatuko dituzte. Txartelak 'urratu eta irabazi' era-koak dira. Batzuek ez dute saririk, baina beste batzuek 10 euroko

sariak dituzte, gero dendetan gastatzeko. Guztira, 1.000 txartel saridun daude. Txarteletan dirurik egokitzen ez zaienek, 1.000 euroko zozketa batean parte hartzeko aukera izango dute. Zozketa hori urtarrilaren 5ean egingo da. Kasu honetan ere, kanpainan parte hartu duten herriko komertzietan gastatu beharko du diru hori irabazleak.

Eguraldia lagun, giro onean egin dute Nikolas azoka Izurtzan

Urtero legez, askotariko postuekin bete zen pilotalekua

IZURTZA • J.D.

Atzo San Nikolas eguna izan zen eta egun horretan ohikoa duen moduan, udalak Nikolas azoka egin zuen Izurtzan.

Bertaratu zirenek eguraldia lagun izan zuten. 22 postu batu ziren herriko pilotalekuan, eta

deneriko produktuak zeuden salgai: ogia, gazta, barazkiak, etxeko jogurtak, eztiak, txerriak, kontserbak, pateak... Euskal Herri osoko ekoizleak batu ziren. Jan-edanerako aukera ere egon zen, Eusko Label zigilua- ren eskutik.



Atzoko Nikolas azokako irudia.

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

*Ohiko saltokietan
salgai*

2024

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite Abadiñoako estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria prentsa denda Hitz Liburudenda
ELORRIO	Tximeleta gozoki denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	Herriko taberna Talka
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda



anboto

Bixente Kapanaga, 9 · IURRETA
Tel.: 946 816 558 · anboto@anboto.org · www.anboto.org



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

ABENDUKO ZOZKETAK



Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako sarrera bikoitza. Abenduaren 16an, Bilbao Arenan.



Jai Alai jaialdirako sarrera bikoitza. Abenduaren 23an, Gernika Jai Alai pilotalekuan.



Erriгорaren otzara.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

'Tu tum Platz!' ikuskizuna: Goretzi Alonso Armendia
Gosaria Xiberun: Itziar Zuloaga Llandata

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Abadiñoako Udalak lehiaketa publikora atera du Zelaietako adinekoen zentroko tabernaren ustiapena

Interesa dutenek abenduaren 24ra arte izango dute aukera euren eskaintzak aurkezteko. Udaletxean aurkeztu behar dira

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako Udalak lehiaketa publikora atera du Zelaietako adinekoen zentroan dagoen taberna ustiatzeko errentamendu-kontrata. Abadiñoako Udaletik jakinarazi dutenez, udaleko webgunean

dauden oinarriek zerbitzua esleitzeko bete beharreko baldintza guztiak zehazten dituzte. Esaterako, oinarri horietan ageri dira 65 urtetik gorakoei aplikatu beharreko tarifa hobaridunak zeintzuk diren, edo taberna zabaltzeko

gutxieneko ordutegiak zeintzuk izan behar duten, besteak beste.

Horrez gainera, kontuan hartuko da euskaraz jakitea, bezeroei hizkuntza bietan berba egin ahal izateko, euskaraz zein gaztelaniaz.

Lokala dinamizatzeko, eta adin eta profil desberdinetara zuzenduriko jarduerak egiteko gaitasuna izatea ere baloratuko dela azaldu dute. Esaterako, ikuskizun txikiak edo karta, partxis zein xake txapelketak antolatzea, besteak beste.

Hori horrela, Zelaietako adinekoen zentroko taberna ustiatzeko interesa duten pertsonak abenduaren 24ra arte izango dute aukera euren eskaintzak Abadiñoako udaletxean aurkezteko.



Zelaietako adinekoen zentroko taberna.

Gabonetako erosketa bonuak eskuragai daude Zaldibarren

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Zaldibarko Udalak *Zaldibarren bizi, Zaldibarren erosi* kanpainaren edizio berri bat antolatu du, bertako saltokietan erostea bultzatzeko asmoagaz. Udalak 10 euroko bonuak banatuko ditu, doan, 20 eurotik gorako erosketetan erabiltzeko.

Bonuak abenduaren 1etik aurrera daude eskuragarri, goizetan udaletxean bertan, eta arratsaldeetan liburutegian, agortu artean; urtarrilaren 8ra bitartean

erabili ahal izango dira. "Guretzat oso garrantzitsua da Zaldibarko merkataritza sarea bizirik mantentzea, hurbileko eta kalitatezko merkataritza delako; horregaitik, horrelako ekimenak bultzatzen jarraituko dugu, tokiko saltokietan erosketak bultzatzeko", azaldu du Eneritz Azpitarte alkatea. Pertsona bakoitzeko bonu bat erosi daiteke, eta erosketa bakoitzeko bonu bat erabili daiteke. Zaldibarko Udalak 7.500 euro ipini ditu kanpaina honetarako.

Carlos Gigante durangarrak irabazi du Berrizko XXV. Argazki Lehiaketa

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Carlos Gigante durangarrak irabazi du Berrizko XXV. Argazki Lehiaketa, eta iazko irabazle J. Carlos Romero ondarroarra geratu da bigarren. Herriko saria Martzel Vargasantzat izan da, eta genero

Argazkiak abenduaren 22ra arte egongo dira Berrizko Kultur Etxean

ikuspegiko saria Zarauzko Arbil Iciar Menterola argazkilarari zarauztarrak jaso du. Argazkiak abenduaren 22ra arte egongo dira Kultur Etxean. Hemeretzi argazki aurkeztu dituzte aurtengo edizioan. Gigantek 300 euroko saria irabazi du.



Eneritz Azpitarte alkatea Zaldibarko merkatariekin, bonuen aurkezpenan.

Oinezkoen joan-etorria errazteko pasabidea eraikitzen dabilta Arriandi auzoan

Iurretako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiagaz adostu zuen pasabidea Aldundiak eraikiko zuela, eta igogailuak udalak; 2024ko udal aurrekontuan 75.000 euro gorde dituzte

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Arriandin oinezkoen joan-etorri segurua ahalbidetu eta erraztu gura duen pasabidea eraikitzen dabilta, eta urtarrean egongo da erabiltzeko moduan, inguruaren urbanizazio lanak amaitu eta eskailerak ipini ondoren. Igogailuak geroago ipiniko dituzte. Pasarelak N-634 errepide nagusiko alde biak eta Akiñenako autobus geltoki biak lotuko ditu eta bizikleta pistagaz bat egingo du Amezketan, udal arduradunek azaldukoaren arabera. Iurretako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiagaz adostu zuen Aldundiak eraikiko zuela pasabidea, eta baita bizikleta pistagaz duen lotura ere. Gainerako lanei udalak egingo die aurre, 100.000 euro inguruko inbertsioagaz. 2024rako udal aurrekontuan 75.000 euroko diru poltsa gorde dute igogailuak egiteko, Iñaki Totorikaguena alkateak gogoratu duenez.

Espaloia errepideari paralelo

Udala martxoan hasi zen N-634 errepideari paralelo doan espaloia



Akiñenako pasabidea Arriandi auzoan dago, gasolindegia ondoan.

egiten, "oinezkoen segurtasuna hobetzea" helburu hartuta. Iurretarako noranzkoan ezkerrean egin dute 500 bat metroko luzera duen espaloia (285.000 euro). Espaloia osotasuna emateko egingo dute orain errepide nagusiaren

alde biak lotuko dituen oinezkoentzako pasabidea. "Pasabide segurua eta irisgarria bermatu gura dugu. Herrian alde batetik bestera oinez edo bizikletan joateko aukera izan gura dugu", nabarmendu du Iurretako alkateak.

Garain adinekoentzako podologia zerbitzua ipiniko dute martxan

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko adinekoek zerbitzu berri bat dute eskura hemendik aurrera: podologia zerbitzua. 65 urtetik gorako garaitarrek erabili ahal izango dute zerbitzu hau. Joan zen asteko barikuan ipini zuten martxan, abenduaren 1ean, eta ordutegi zehatza duela azaldu dute udaleko iturriek.

Kontsultak hilean behin egingo dira, bariku batean, 10:00etatik 14:00etara

Kontsultak hilean behin egingo dira, bariku batean, 10:00etatik 14:00etara. Zerbitzuaren erabiltzaileek udal txerara deitu behar dute ordua hartzeko, telefono zenbaki honetara: 946 816 393. Kontsulta udaletxeko beheko solairuan dagoela azaldu dute udal arduradunek.

Bisita gidatuak antolatu dituzte astebururako, Angurreta ezagutzeko

MAÑARIA • J.D.

Gaur egun, Angurreta Arte Espazioa bisita gidatuen bitartez baino ezin da bisitatu. Bada, espazio hori ezagutu gura duenak asteburu honetan du horretarako aukera. Gaur barikurako, bihar zapatarako eta domekarako antolatu dituzte bisita gidatuak. 12:30ean izango dira. Interesa dutenek aurretik egin behar dute erreserba, telefono zenbaki honetara deituta: 656 738 324.

Angurretan, Tadanori Yamaguchi eskultore japoniarrak [Asturiasen bizi da] beren-beregi espazio horretarako eginiko eskulturak daude ikusgai. Leku zehatzetan kokatuta daude, bertan espazioagaz bat egiten dutelako. Erakusketaren esentzia "inguru naturalaren eta artearen inguruko elkarrizketa" legez definitu izan du Victor Arrizabalagak, Angurreta Harrobia elkartearen arduradunak. Artelan guztiak aluminiozkoak dira eta harri baten kontra kolpatuz eman diete erliebea.

Haurreskolako eraikina eta HAPOa, aurrekontuetako inbertsio nagusiak Elorrión

EH Bilduk eta Elkarrekin-Podemosek aurrekontuen alde bozkatu dute, EAJk kontra

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak 9.582.777 euroko aurrekontua izango du 2024an, aurtan baino %5,46 handiagoa. Julene Lazkano alkateak bilkuran jakinarazi zuenez, aurrekontu hauek elorriarren "bizi kalitatea hobetzeko" bidea dira. Udalaren egoera "oso ona" dela azaldu zuten, zorpetze maila baxua duela, %2,1koa, legeak muga legez ezartzen duen %60tik oso urrun.

Maria Herrero Ogasun arduradunak jakinarazi zuen hiru gai nagusik baldintzatzen dutela 2024ko aurrekontua. Alde batetik, elektrizitatearen eta erregaien prezioaren igoerak (batez beste, %65), eta, bestetik, aurrekontuetan jasotzen diren inbertsio nagusi biek: haurreskolaren eraikina eta HAPOaren idazketak. 333.076 euro ipiniko dituzte haurresko-

laren proiekturako, eta 119.364 euro HAPOaren idazketarako. "Haurreskolaren obra 2024an amaituko da, zorpetzerik barik. Eta HAPOaren idazketaren gastu osoaren zatirik handiena datorren urtean amortizatuko da", esan zuten.

Bestalde, 2024ko aurrekontuak aurreko legegintzaldiei jarraipena ematen dienak direla azaldu zuten gobernu taldekoek.



Osoko bilkurako argazkia.

Otxandio Azoka
TOKIKO PRODUKTU ETA ARTISAUAK
ABENDUAK 17, DOMEKA
10:00etan Azoka hasiera, 15:00etararte.
12:30ean Herri kirola: Urrezko Aizkora, finalerdia.
13:00etan Urbiribil dultzaineruen poteo girotua.

LAGUNTZAILEAK
EGBR SPORT
Vital FUNDACIÓN FUNDAZIOA
ANTOLATZAILEAK
OTXANDIO
BARRIO BARRIO



Hegoi Escudero irabazi zuen txapelketa.

Hegoi Escudero atxondarra txapeldun Euskal Herriko ezti lehiaketan

Eztigile atxondarrak ezti ilunen kategorian irabazi zuen txapela Usurbilen jokaturiko Erle Egunean

ATXONDO • EKAITZ HERRERA

Hegoi Escudero eztigilea "pozarren" dago lorturikoagaz. Joan zen domekan, Euskal Herriko ezti txapelketaren 22. edizioa jokatu zen Usurbilen, Erle Eguna ospakizunaren barruan, eta Escudero lehengo saria lortu zuen ezti ilunaren atalean. "Durangaldeko Eztigileen Elkarte osatzen duen kideetarikoa bat sarri joaten da bertara. Elkarteko

hainbat ekoizpen aurkeztu zuen lehiaketara, eta gurea saritu zuten", jakinarazi du Escudero.

Eztigile atxondarrak Mañarian baturiko ezti aurkeztu zuen sariketara, txilar ezti. "Durangaldean gutxitan izaten dugu ezti mota hori ekoizteko aukera. Hemengo mendietan badago txilarra, baina ez da oso emankorra eztiaren ekoizpenerako", azaldu du.

Politikan

Markel Larruskain
Narbaiza
EH Bildu



Aurrekontuak eta aurreko kontuak

Durangoko Udalean aurrekontuen inguruko eztabaida eta negoziazio fasea hasi dugu. Datorren urtean, 2024an, Durangoko Udalak zertan zenbat gastatuko duen eta nondik zenbat diru jasoko duen definitu eta aurreikusteko unea da, beraz.

Aurrera begira, asko dira lehenetsunak jorratu beharreko eremuak, eta eztabaida publiko ezinbestekoa izango da, alderdi bakoitzak argi azaldu beharko ditu zeintzuk diren bere asmoak alor bakoitzean eta zein proiektu daukan Durangorentzat. Izan ere, kohesio soziala, trantsizio energetikoa, berdintasuna, parte hartzea, inklusioa... hitzak dira, baina programa, proiektu eta aurrekontu zehatzak behar dituzte hitzeta-tik ekintzetara pasatzeko.

EH Bildun prest gaude eztabaidari heltzeko, ideiak partekatu eta ahalik eta adostasun zabalenak bilatzeko. Hori bai, datorren urteko aurrekontuen inguruan hitz egiten jarri aurretik, aurreko kontuak argitu beharko dira.

Badira hainbat proiektu aurtengo aurrekontuetan aurreikusita zeudenak, hau da, 2023ko gastu-irabazien kalkuluan bazeudenak. Tartean daude Kapitanena eraikina -San Fausto auzorako bilgune izango den espazio bat eraikitzeko proiektua-, trenbidearen trazatuan bidegorri bat egiteko obrak edo aurrekontu parte hartzaileen bitartez auzoak hobetzera bideratutako diru partidak, besteak beste.

Proiektu hauek geldirik daude eta bertan behera gelditzeko arriskuan.

Hemendik eskaera udal gobernuari, orain arte herritarrekin adostutakoa bideratu eta aurrera begira jar gaitezten.

Durangaldea asteen

Azoka solidarioagaz hasiko da Iurretako Gabonetako egitaraua, abenduaren 11n

IURRETA | Iurretan, 9. Azoka Solidarioagaz batera sartuko dira Gabon giroan, datorren abenduaren 11n. Azoka abenduaren 11tik 15era bitartean egongo da zabalik, Ibarretxe Kultur Etxean, 9:00etatik 12:30era eta 16:30etik 19:30era. Baturiko dirua JAED elkarteari emango diote. Bost euroko erosketaren truke otzara biren zozketan parte hartzeko txartela emango dute. Urtarrilaren 5ean egingo dute zozketa.

Esne Beltza, Nevadah, Ibil Bedi eta Belako, besteak beste, 40 minutu Rock-en

DURANGO | 40 Minutu Rock elkartean jaialdiak asteen iragarri du zein taldek parte hartuko duten aurtengo edizioan. Jaialdia otsailaren 24an izango da eta dagoeneko ipini dituzte sarrerak eskuragarri. Interneten erosi daitezke, eta baita Durangoko Azokako Herri Dendan ere, abenduaren 6tik 10era.



Iritzia

Kalitatezko Salaketa Zerbitzu eskaria Zornotzako Udaltzaingoa

Lehenengo eta behin, eskerrak eman nahi nizkioke Durangoko Ertzaintzari, 2023ko azaroaren 10ean etxean izan genuen lapurreta dela-eta hain arin etortzeagatik abisu eman eta gero, eta, batez ere, nire alabari emandako arretagatik. Adintxikikoa da eta berak ikusi zuen etxeko atea zabalik. Ateko kalteak konponduta, Zornotzako Udaltzaingora joan nintzen salaketa jartzera. Aho bete hortz geratu nintzen, hauxe esan zidaten eta: "Lapurretaren ondoren etxean Ertzaintza egon bada, hobe duzu Durangoko Ertzaintzara joan salaketa jartzera". Ertzaintzako egongelan nengoela, Zornotzako emakume batekin elkartu nintzen. Salaketa bat ipintzera joan zen, bere gurasoek, adinekoak zirenez gero, eragozpen handiak zituztelako Zornotzatik mugitzeko. Eta horregatik joan zela euren nortasun agiriekin. Ertzain bati galdetu nion ea Zornotzako Udaltzaingoa zergatik ez zuen nire salaketa hartu, ea bazegoen horretarako protokolorik, eta ertzainak ezetz erantzun zidan, eta ez zela lehenengo aldia hori gertatzen zena. Gaineratu zuen, horren harira berak ere izan zuela eztabaida Zornotzako udaltzainen buruarekin. Egoera hau jasanezina da Zornotzako herritarrentzat, eta salaketak ahalik eta arinen hartzeko zerbitzua eskatu nahi dut, eta baita zerbitzua zuzentzea ere. Horregatik, Zornotzako Segurtasun zinegotziari zuzentzen natzaio, Zornotzako Udaltzaingoa salaketak hartzeko zerbitzua jar dezaten, ze horretarako ordaintzen ditugu zergak. Eta plantilla handitu behar badute, erabili ditzatela ganoraz aurrekontuetako 33 milioi euroak. Udaltzainen buruari ere zuzentzen natzaio, esateko bakarrik Prozedura Kriminalaren Legeak dioena I. Tituluan, II. Liburuan, 259-269 artikuluetan, zeinetan "SALAKETA" arautzen duen.

Enrike Barañano (Zornotza).

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA
ODONTOLOGIA PEDIATRIKOA - PADI · HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

BURUARI KLIK!




DIFERENTZIAK

Beheko irudien artean topatu zortzi diferentziak.



A vertical column of ten horizontal dashed lines for writing answers.



IPUINA

Beheko lerroetan idatzi ipuin labur bat irudian ikusten den igela pertsonaia nagusi lez hartuta. Gero, zure senide eta lagunei irakurri.

Handwritten area with horizontal dashed lines for writing.



LEKUZ KANPO

Beheko irudi honetan, garai horregaz bat ez datozen zortzi gauza daude. Denak topatzeko gai zara?



MARGOTU

Margotu ezazu beheko dragoia gurago duzun moduan.













ITZALAK

Zein itzal dagokio
beheko irudi honi?



DOMINOA

Marrastu dagokion irudia lauki bakoitzean.





AHOTSENEA

Abenduak 7, eguena

Plateruena (Zuzenekoak)

11:00 'Zukan barrutik'. Tailerra.

13:20 Xabi San Sebastian. 'Haize dela ere'.

14:30 Kadira. 'Kadira'.

15:40 Braulio. 'Lur azpira itzuli'.

16:50 Murgi. 'Hain zuzen ere'.

18:00 Moxal. 'Nabar'.

19:10 Zatibi. 'ODD'.

20:20 Zeker. 'Su hartu bitartean'.

21:30 Ezezez. 'Katuzaldia'.

Musika Eskola (Solosalldiak)

11:00 'ABERE BA, palindromo ilustratuen piztegia'. Tailerra.

13:00 Estitxu Fernandez. 'Sortze berri bat. Indarkeria obstetrikorik gabea'. Elkar. Liburu aurkezpena.

13:30 Harkaitz Cano. 'Ulu egiteko bolondres bila'. Susa. Errezitala.

14:00 Goiatz Labandibar. 'Bekatua'. Erein.

16:00 Gotzon Barandiaran. 'Hildako haurra'. Maddi Goikoetxea. 'Ura jaten'. Ganbila antzerki bilduma. Susa. Liburu aurkezpena.

16:30 Nerea Loiola. 'Azken denbora'. Erein. Liburu aurkezpena.

17:00 Annie Ernaux. 'Emakume izoztua'. Itzultzailea: Gema Lopez Las Heras. Elkar. Liburu aurkezpena.

17:30 Xabier Mendiguren. 'Oso latza izan da'. Elkar. Liburu aurkezpena.

18:00 Patxi Zubizarreta. 'Loak ezkututzen duena'. Elkar. Liburu aurkezpena.

18:30 Iratxe Ormatza. 'Printzak begietan'. Elkar. Liburu aurkezpena.

19:00 Josebe Blanco. 'Hausnarrean. Ardiek egiten naute artzain'. Argia. Liburu aurkezpena.

19:30 Iñigo Martinez. 'Pantailen garaipena. Begiradaren totalitarismoaren kontra'. Elkar. Liburu aurkezpena

Abenduak 8, barikua

Plateruena (Zuzenekoak)

11:00 Lotura. 'Erantzunaren zain'.

12:10 Eider. 'Loratzen'.

13:20 Eire. 'Zauriren bat bistan'.

14:30 Miren eta Roberto Etxebarria. 'Kolpatuz'.

15:40 Nakar. 'Lore eta laban'.

16:50 Ithaka. 'Biluzten'.

18:00 Sara Zozaya. 'Nara'.

19:10 Txopet. 'Nahiz eta jausi'.

20:20 Silitia. 'Hiru ate'.

21:30 TOC. 'Eskerrik asko'.

Musika Eskola (Solosalldiak)

11:00 Martin Etxebarria. 'Kangaroo'. Elkar. Liburu aurkezpena.

11:30 Ane Labaka. 'Barraskiloek baino bat gehiago'. Erein. Liburu aurkezpena.

12:00 Irati Goikoetxea eta Irimarra. 'Nor'. 1545 argitaletxea. Liburu aurkezpena.

12:30 Yurre Ugarte eta Julen Ribas. 'Iris XXII'. Txalaparta. Liburu aurkezpena.

13:00 Mari Luz Esteban. 'Haragizko erreformak'. Pamiela. Liburu aurkezpena.

13:30 Juan Kruz Igerabide. 'Ura saltoka eta natura eta kultura jolasean'. Alberdania. Liburu aurkezpena.

14:00 Mugan. 'Aurrera ez den alde batera'.

16:00 Uxue Alberdi eta Begoña Durruty. 'Belarriko kilkerra'. Elkar. Liburu aurkezpena.

16:30 Lide Hernando. 'Izotz ura'. Susa. Liburu aurkezpena.

17:00 Garazi Albizua. 'Gaizkileen galtzada. Leitzako dorreak'. Pamiela. Liburu aurkezpena.

17:30 Karmele Jaio. 'Maitasun kapitala'. Elkar. Liburu aurkezpena.

18:00 Hannah Arendt. 'Eichmann Jerusalem, gaizkiaren hutsaltasunaren gaineko txosten bat'. Itzultzailea: Koro Navarro. katakrak. Liburu aurkezpena.

18:30 Jon Urzelai. 'Su festak'. Susa. Liburu aurkezpena. Liburu aurkezpena.

19:00 Jon Artano. 'Juana'. Elkar. Liburu aurkezpena.

19:30 Xabier eta Martin Etxebarria eta Alex Sanvy. 'Artxipelagoa'. Elkar. Liburu aurkezpena.

Abenduak 9, zapatua

Plateruena (Zuzenekoak)

11:00 Ke Lepo. 'Izpi'.

12:10 TRB. 'Turbo'.

13:20 Amorante. 'Harri herri har'.

14:30 Leihotikan. 'Etorkizuna ginenean'.

15:40 Haize-arrosa. 'Ez dogu zor ezer'.

16:50 Otoi. 'Zuzen'.

18:00 Etxepe. 'Etxepe kids'.

19:10 Rukula. 'Traganarru'.

20:20 Feline. 'Jan zu'.

21:30 Ibil Bedi. 'Goldea'.

Musika Eskola (Solosalldiak)

11:00 Friedrich Engels. 'Etxebizitzaren auzia'. Itzultzailea: Ane Garcia. Katakrak. Liburu aurkezpena.

11:30 Pako Aristi. 'Irunberri, 1990: Arroilaren negarra'. Erein. Liburu aurkezpena.

12:00 Uxue Alberdi eta Susanna Martin. 'Surflaria'. Ikastolen Elkarte. Liburu aurkezpena.

12:30 Miriam Luki. 'Argialdiak'. Susa. Liburu aurkezpena.

13:00 Eneko Aizpurua. 'Gaueko azken expressoa'. Alberdania. Liburu aurkezpena.

13:30 Luigi Anselmi. 'Larrazkeneko argi-ilunetan'. Pamiela. Liburu aurkezpena.

14:00 Josu Penades. 'Egarria'. Alberdania. Liburu aurkezpena.

16:00 Jon Alonso. 'Carvalho Euskadin'. Susa. Liburu aurkezpena.

16:30 Miren Agur Meabe. 'Itzulerak'. Elkar. Liburu aurkezpena.

17:00 Fertxu Izquierdo. '...eta gauetik, euria'. Pamiela. Liburu aurkezpena.

17:30 Julen Apella. 'Postal bat desertuan'. Balea Zuria. Liburu aurkezpena.

18:00 Jon Maia. 'Kantu berri bat gara' (disco-liburua). Elkar. Aurkezpena.

18:30 Olatz Mitxelena. 'Arrain hezur bat eztarrian'. Elkar. Liburu aurkezpena.

19:00 Jasone Osoro. 'Arrakasta'. Elkar. Liburu aurkezpena.

19:30 Aintzane Usandizaga. 'Zomorrotu'. Elkar. Liburu aurkezpena.

Abenduak 10, domeka

Plateruena (Zuzenekoak)

11:00 Intza. 'Aheri'.

12:10 Mamu. 'Mapa eta lurraldea'.

13:20 Karma. 'Odolean dena'.

14:30 Haira. 'Laupabortz aire ttipi'.

15:40 Muzak. 'Irabaziak eta galerak'.

16:50 Kuma No Motor. 'Baiona zikina'.

18:00 Modus Operandi. 'Atzo eta gaur'.

19:10 Kemaronte. 'Kemaronte'.

20:20 Muare. 'Muare'.

21:30 Jabi Patxon eta Kofradia Rock. 'Iraganaren deialdiak'.

GAZTE EZTANDA

Abenduak 8, barikua

14:30 Bazkaria Landako eskolan.

16:30 Bingo musikala Landako eskolan.

22:00 Katu! eta Dj MadariKatuak, Landako plazan.

SZENATOKIA

Abenduak 7, eguena

11:00 'Antzerki sorkuntza partekatzen'. Tailerra.

17:00 'Heroiaren mina'. Gaizka Chamizo. Bakarrizketa eta pole dance.

17:30 'Duzhe Dobre'. AmaHiru konpainia. Antzerkia.

18:00 'Heroiaren mina'. Gaizka Chamizo. Bakarrizketa eta pole dance.

18:30 'Duzhe Dobre'. AmaHiru konpainia. Antzerkia.

Abenduak 8, barikua

12:30 'Eukalyptus'. Jon Ander Urresti. Sormen beka DA! 2022. Antzerkia. Bertsio laburra.

17:30 'Eukalyptus'. Jon Ander Urresti. Sormen beka DA! 2022. Antzerkia. Aurrestreinaldia.

Abenduak 9, zapatua

12:30 'Generorantz'. Kimua DK. Dantza.

13:00 'Euskaldunen jatorria, historia eta irria'. Txiki. Bakarrizketa.

13:30 'Txizatoki bat eszenatokian'. Patxo Telleria. Bakarrizketa.

17:30 'Generorantz'. Kimua DK. Dantza.

18:00 'Euskaldunen jatorria, historia eta irria'. Txiki. Bakarrizketa.

18:30 'Txizatoki bat eszenatokian'. Patxo Telleria. Bakarrizketa.

Abenduak 10, domeka

12:30 'Gordinak'. Ane Zapirain eta Alicia Rechac. Dantza.

13:00 'Txilin hotsak'. Les Bobé Bobé. Antzerkia.

17:00 'Gordinak'. Ane Zapirain eta Alicia Rechac. Dantza.

17:30 'Txilin hotsak'. Les Bobé Bobé. Antzerkia.

KABIA

Abenduak 7, eguena

10:30 'Nire lehen bideojokoa'. Tailerra.

12:00 'Gamer Gela (Game Erauntsia + Rolariak)' Topaketa.

16:00 'Gamer Gela (Game Erauntsia + Rolariak)' Topaketa.

Durangaldeko albisteak jaso gura dituzu?



Bidali ALTA
688 635 041
telefono zenbakira

Batu Anbotoko
Whatsapp taldera!



anboto

TALAIA

Abenduak 8, barikua

10:30 'Zaintzaren hariak'. Felix Arrieta. Elkar. Liburu aurkezpena.

11:00 'Idatzi behar nizkizunak'. Nerea Loiola. Erroa eta Zenbat Gara. Liburu aurkezpena.

11:30 'Gora Euskal Herrientsak'. Asisko Urmeneta.

12:00 'Joxe Azurmendiren pentsamendua gaur'. Lorea Agirre, Haritz Azurmendi, Alaitz Aizpuru, Mikel Urdangarin. Mahaingurua.

13:00 'Nerabeen garrasia'. Osasun mentala aldaketa garaian'. Alberdania. Mahaingurua.

13:30 'Irulegiko eskua'. Aranzadi Zientzia Elkarte. Liburu aurkezpena.

14:00 'Biziakoak'. Juan Carlos Etxegoien Xamar. Pamiela. Liburu aurkezpena.

14:30 'Leitzako dorreak. Nafarroako historia bat Erdi Aroko arotz batek kontatua'. Iñaki Sagredo. Pamiela. Liburu aurkezpena.

15:00 'Ahanzturaren aurkako errezetak. Palestinako emakume errefuxiatuekin Libanon sukaldatzen. UNRWA Euskaditik'. Liburu aurkezpena. Aurkezpena.

15:30 Amillubi baserria, lurra herriari deika (egitasmoa).

16:00 'Sendabelarrek dakitena. Garbiñe Larrea'. Aurkezpena.

16:30 '2024ko Ilargiaren Egutegia'. Jakoba Errekondo. Argia. Aurkezpena.

17:00 'Antilletan galdurik'. Kepa Larrea. Pamiela. Liburu aurkezpena.

17:30 'Tentsio ardatzak, ipar'. Txalaparta. Mahaingurua.

18:30 'Txakomic. Bizkaiko Museoa'. Liburu aurkezpena.

19:00 'Xabier Lete bertsolaria al zen?'. EHUko argitalpenak. Liburu aurkezpena.

19:30 'Letrakartel. Bizkaiko Museoa'. Liburu aurkezpena.

Abenduak 9, zapatua

10:30 'Santa Kruz apaiza/ RUR Robot lantegia. TZ Testu Zaharrak'. Liburu aurkezpena.

11:00 'Txikia eta Ogro operazioa'. Iñaki Egaña. Txalaparta. Liburu aurkezpena.

11:30 'Lizardi: Bihotz begietan eta gainerako olerkiak'. Karlos Otegi. Euskaltzaindia. Liburu aurkezpena.

12:00 'Kultura bat: Berria egunkariaren 20. urteurrena'. Ikuskizuna.

13:00 'Aiako Harria parke naturala eta Jaizkibel'. Sua edizioak. Liburu aurkezpena.

13:30 'Hegazti habiagileen atlasa'. Aranzadi Zientzia Elkarte. Liburu aurkezpena.

14:00 'Erletxo, erletxo, nagusia hil da'. Mertxe Aizpuru. UEU. Liburu aurkezpena.

14:30 'Gidabaimenak euskaraz' egitasmoa. Euskadiko Autoeskolen Federazioa. Aurkezpena.

15:00 Herri Urrats maketa lehiaketa. Aurkezpena.

15:30 'Zaldi bat ihes garrezko zelaian'. Koldo Izagirre eta Gorka Bereziartua. Argia. Liburu aurkezpena.

16:00 'Manaslu neguan'. Alex Txikon. Sua edizioak. Liburu aurkezpena

16:30 'Zure laguna naiz'. Elaia Torres. Liburu aurkezpena.

17:00 'Egungo euskal albuma'. EHUko argitalpen zerbitzuak. Liburu aurkezpena.

17:30 '2024ko Ilargia eta landareak urteko lanen agenda'. Argia. Aurkezpena.

18:00 'Planeta prekarioan. XXI. mendeko krisi eta erresistentzien kronikak'. Pello Zubiria. Argia. Liburu aurkezpena.

18:30 'Euskara orain. Eraginkortasuna helburu', Alberdania. Liburu aurkezpena.

19:00 'Eguraldiaren euskara. Aro-bidaia Euskal Herrian barrena'. Kepa Diegez eta Jorge Gimenez. Alberdania. Liburu aurkezpena.

19:30 'Alain. Jausiz'. 1545 argitaletxea. Liburu aurkezpena.

Abenduak 10, domeka

10:30 Luis Mari de Juan Irastorza. 'Bakardadea'. Alt autores. Liburu aurkezpena.

11:00 'Ño'. Miren Artetxe, Eli Pagola eta Maitane Gartzandia. Argia. Liburu aurkezpena.

11:30 'Maite Idirin, herrigintzan kantuz'. Jokin Apalategi. UEU. Liburu aurkezpena.

12:00 Euskadi Sariak - Irakurketa eta gazteak: Patxi Zubizarreta, Joseba Larratxe, Miren Billelabeitia. Mahaingurua.

13:00 'Munduan barna (Herriak, ipuinak eta giza eskubideak)'. TZ Testu Zaharrak. Liburu aurkezpena.

13:30 'Eric Dycharri. Deus'. Pamiela. Disko aurkezpena.

14:00 'Euskal Herria. La mirada extranjera'. Txalaparta. Liburu aurkezpena

15:00 'Plazas con frontón en Euskal Herria'. Daniel Carballo. Pamiela. Liburu aurkezpena.

15:30 'Raquetistas'. Sans Soleil Ediciones. Liburu aurkezpena.

16:00 'InpAkta, inpaktu sozialerako ikerlanen akta'. EHUko argitalpen zerbitzuak. Liburu aurkezpena.

16:30 Euskadi Sariak - Literatura eta bidaiak: Arantxa Urretabizkaia, Joxe Mari Berasategi eta Ander Izagirre. Mahaingurua.

IRUDIENEA

Abenduak 7, eguena

11:00 'Bideoklipa DA!' Emanaldia

12:30 'Emakume zinemagileak, desgaitasuna eta zaintzak'. Meridiano moreak. Laburmetriak

15:00 'Loa eta Laia'. Telesail musikatua. Film emanaldia.

16:00 'Sustraietatik eraldatuz'. Haur eta gazte literatura eta genero berdintasuna. Dokumentala.

17:00 'Agur Artzai'. Julen Zubiete. Film emanaldia.

18:00 'Kimuak' laburmetriak. Sorbeltza (Iban del Campo), Ximinoa (Itziar Leemans). Film emanaldia.

19:00 LaburmetriaDA: Vida i miracles d'una papallona (Aitor Alberdi), Txontxongiloa (Sonia Estévez), Malkoak (Sonia Estévez), Erro (Amaia Lejarreta). Film emanaldia.

Abenduak 8, barikua

11:00 'Lagunok!' Podcasta. Zuzeneko saioa. Estreinaldia.

12:00 'Beita'. Euskarazko webseriea. Talde lana. Aurkezpena.

13:00 Izaro. 'Cerodenero'. Bideoklip emanaldia. Estreinaldia.

17:00 DemaS.A. Sortzaile amateurren arteko dema. Euskarazko laburmetriaren final handia. Lehiaketa.

Abenduak 9, zapatua

11:00 'Arnasaldiak'. Iker Martinez de Zuazo. Dokumentala.

11:30 'WikiemakumeOK DOnk'. Josi Sierra. Film emanaldia.

13:00 'Habana Glass'. Jon Aramendi eta Aitor Mendilibar. Film emanaldia.

13:45 'Punkaren beste aldea'. Perlata. Dokumentala.

15:00 'Yuku.' Familientzat zinema euskaraz (Zineuskadi). Film emanaldia.

17:00 'Amari'. Iosu del Moral. Dokumentala.

18:30 'Pizti bat agian'. Ainhoa Gutierrez eta Olaia Gonzalez. Film emanaldia.

Abenduak 10, domeka

11:00 'Durangas' dokumentala. Talde lana.

12:00 'Abeltzaintza ekologikoarekin dena hobetzen da'. Ekolurra eta Biolur. Talde lana. Dokumentala.

13:00 'Orri zuriak betetzen'. Unai Alberdi eta Eneritz Aulestia. Dokumentala.

15:00 'Asterix'. Familientzat zinema euskaraz.

17:30 'Bizkargin santikurutzak'. Tradizioa eta memoria'. Dokumentala.

19:00 'Durangaldeko gazteak eta euskara' dokumentala. Talde lana. Estreinaldia.

SAGUGANBARA

Abenduak 7, eguena

10:30 'Haur filosofia'. Tailerra.

16:30 'Zapata magikoa!' Potx eta Lotx pailazoak. Ikuskizuna.

18:00 'Adi Natura bilduma'. Sua. Liburu aurkezpena eta kontaketa.

Abenduak 8, barikua

11:00 'Martxanterak'. Bizkaiko Foru Aldundia. Liburu aurkezpena.

12:00 'Pantxo Zezena'. Denonartean. Liburu aurkezpena.

13:00 'Ameli eta Xirrikituena jostunek'. Ipuin kontaketa.

16:00 'Mari Gonagorri eta hamazazpi berri'. Denonartean. Liburu aurkezpena.

17:00 'Mihi-puntaren puntan'. Elkar. Liburu aurkezpena.

18:00 'Bada zerbait'. Agalir. Liburu aurkezpena.

Abenduak 9, zapatua

11:00 'Sustraidun umea'. Elaia Torres. Liburu aurkezpena.

12:00 'Basati'. 1545 argitaletxea. Ipuin kontalaria.

13:00 'Batetik bestera' kontzertua. Benetan be. Ikuskizuna.

17:00 'Inauteri herrikoiak'. Txalaparta. Ipuin kontalaria.

Abenduak 10, domeka

11:00 'Liburu baby kluba'. Mestiza elkarte. Tailerra.

12:30 'Ene Kantak'. Dantzan. Ikuskizuna.

16:30 'Ilustrazio tailerra'. Usue Egia.

DURANGO +

Abenduak 7, zapatua

10:00-14:30/16:00-18:30 'Basques in Australia'. Turismo Bulegoa. Erakusketa.

11:00-14:00/17:00-20:00 'Ibarrola. Papera ardatz'. Durangoko Museoa. Erakusketa.

11:00 'Kaleido-book'. Bixenta Mogel herri biblioteka. Tailerra.

11:00 'Agustin Ibarrolari buruzko tailerra'. Museoa. Tailerra.

18:00 'Nolakoa da amatasun feminista?' Ikus-entzunezko podcasta. Hamaika Telebista. Aurkezpena.

19:00 'Emakume zinemagileak, desgaitasuna eta zaintzak'. Meridiano moreak. Topaketen laburpena. Aurkezpena.

20:30 'Bidasoa 2018-2023'. Zugaza Zinema. Film emanaldia.

Abenduak 8, barikua

13:00 'Bermuta eta eztabaida'. Etorkizuna irudikatzen literatura. Consonni. Mahai-ingurua.

10:00-14:30/16:00-18:30 'Basques in Australia'. Turismo Bulegoa. Erakusketa.

11:00-14:00/17:00-20:00 'Ibarrola. Papera ardatz'. Durangoko Museoa. Erakusketa.

19:00 'Bertsoglosasaio. Bertsolaris eta glosadores'. Pol-len edicions. Ekitaldia.

20:30 'Bidasoa 2018-2023'. Zugaza Zinema. Film emanaldia.

Abenduak 9, zapatua

12:00 'Geuretik sortuak: interakziotik fikziora. Geure herrien eta sortzaileen arteko interakziotik sortutako kontakizunak'. Udalbiltza. Aurkezpena.

10:00-14:30/16:00-18:30 'Basques in Australia'. Turismo Bulegoa. Erakusketa.

11:00-14:00/17:00-20:00 'Ibarrola. Papera ardatz'. Durangoko Museoa. Erakusketa.

19:30 'Txistua XXI. mendean'. Arrupe aretoa (Jesuitak ikastetxea). Kontzertua.

19:30 'Zestaren zirrara'. Ezkurdi Jai Alai frontoia. Liburu aurkezpena eta zesta-punta partiduak.

20:30 'Bidasoa 2018-2023'. Zugaza Zinema. Film emanaldia.

Abenduak 10, domeka

10:00-14:30/16:30-18:30 'Basques in Australia'. Turismo Bulegoa. Erakusketa.

11:00-14:00/17:00-20:00 'Ibarrola. Papera ardatz'. Durangoko Museoa. Erakusketa.

20:30 'Bidasoa 2018-2023'. Zugaza Zinema. Film emanaldia.



Azokaren irekiera momentua, atzo.

Kulturzalez eta fantasiaz bete dira Landako inguruak, Durangoko Azokaren 58. edizioagaz

Durangoko Azokak eguaztenean zabaldu zituen ateak, eta domekara arte dozenaka ekitaldi izango dira bertan

DURANGOKO AZOKA • ARITZ MALDONADO
Abenduero legez, Durango euskal kulturaren plaza nagusi bihurtu da. Aurten, kulturaz ez ezik, fantasiaz ere bete dira Landako eta inguruak. Milaka kulturzale etorri dira bertara, eta egunotan ezagunak diren irudiak errepikatu dira: lagun kuadrillak liburuz, diskoz eta bestelakoz beteriko poltsak eskuetan, guraso eta haurrak erakuslehoetan azken nobedadeengaitik galdezka, sortzaileak euren lanak sinatzen, eta aspaldian elkar ikusi ez duten lagunak agurrak... Durangoko Azokaren 58. edizioak eguazten goizean zabaldu zituen ateak, eta lehenengo ordu-rako lehenengo bisitariak atean zain zeuden, ezagunak dituzten pasilloak zeharkatzeko gogotsu batzuk, lehenengoz Durangoko

Azoka ezagutzeko besteak. Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkarteko kudeatzaileak dioenez, "Azoka jendetsua izatea eta bizipotza sortzea" gura dute.

Gaur, eguena, hainbat ekitaldi egongo da, eta, besteak beste, Zeker talde elorriarrak kontzertua emango du Ahotsenean. Bihar, abenduak 8, Gazte Eztanda egingo dute, bigarren urtez. Eguerdian bazkaria eta bingo musikatua egingo dituzte, eta gauean Katu talde durangarrak kontzertua emango du Landako inguruetan dagoen karpan; ondoren, DJ MadariKatuak musika ipiniko du.

257 erakusmahai
Bost egunez, 257 erakusmahai egongo dira Landako Gunean, eta bertan 950 nobedade aurkeztuko

Ahotseneako emanaldi guztiak ANBOTOn webgunearen bitartez jarraitu daitezke

Bost egunez, 257 erakusmahai egongo dira Landako Gunean; 950 nobedade aurkeztuko dituzte

dituzte -689 liburu, 179 disko eta musika produktu, 44 aldizkari, eta bestelako 40 lan-. Guztira, 265 kultur ekintza egongo dira Durangoko guneetan egunotan. Talaiaiko aurkezpenak, areto nagusian ez ezik, Durangoko Arte eta Historia museoan ere egingo

dituzte gaurtik eta abenduaren 10era bitartean. Agustin Ibarrolaren *Papera ardatz* erakusketa ere museoan izango da. Plateruena Kultur Aterpean zuzeneko musika entzun ahal izango da, urtero legez. Egunotan 49 talde igoko dira bertako agertokira. Asteburuan, Leihotikan, Ke Lepo, Rukula, Etxepe, Haira eta Kuma No Motor arituko dira, besteak beste; Haize Arrosa talde berriztarrak ere bere disko berria aurkeztuko du egunotan. Aurkezpen hauek guztiak anboto.org webgunearen bitartez jarraitu daitezke. Bartolome Ertzilla musika eskolan 70 liburu aurkeztuko dituzte egunotan. Eta Zugaza zineman Irudiena gunea egongo da, beste urte batez. 30 emanaldi baino gehiago egongo dira bertan. San Agustin kultur-

gunea Szenatokia bihurtuko dute aurten ere; gaur, besteak beste, iaz Sormen Beka irabazi zuen *Eucalyptus* lanaren aurrestreinaldia egingo dute. Saguganbara gunerik arrakastatsuenetarikoa bat izan da beste urte batez, Elkartegian.

Oso-osoan presentziala
58 edizio hau aurrez aurrekoa izango da bere osotasunean. COVIDak eragindako osasun krisialdia eta honen ondorioak guztiz gainditu, eta oso-osoan presentziala izango da; beraz, aurten ez da Internet bidezko dendarik egongo. Landako Gunea izango da salmenta gunea bakarra, eta egunero 10:30etik 20:00etara egongo da zabalik. Domekan, 18:00etan itxiko ditu ateak Durangoko Azokak. Hala ere, Plateruenean 22:00ak arte egingo dituzte aurkezpenak. Bestalde, Durangoko Azoka amaia-turikoan *Zu non, han DA!* programari ekingo diote. Euskal Herriko 88 dendatan Durangon aurkezten dabilzan nobedadeak ipiniko dituzte erakuslehoetan; 27 dendatan saioak ere egingo dituzte.



Durangaldean ostalaritzarekin, zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian





Luisa Aldaburu, Guillermo Olmo eta Beñat Gaztelurrutia.

"Durangoko Azoka asko aldatu da 58 ediziotan. Neurri handi batean, herritarren eta elkarten ekarpen eta proposamenengaitik. Kasu honetan, Azokaren bueltan arte plastikoek duten gabezia beteko da", azaldu du Beñat Gaztelurrutia Gerediagako koordinatzaileak.

Abenduaren 6tik 10era bitartean, 10:00etatik 20:30era egongo da zabalik Basarte azoka. Bestalde, abenduaren 30era bitartean ere zabalduko dute; martitzenetik barikura 18:30etik 20:30era, eta zapatuetan 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.

Azokaz gainera, Mikeldiko idoloaren 4x6 metroko erreplika egiten hasi dira asteon

Lau metroko idoloa

Azokaz gainera, Mikeldiko idoloaren 4x6 metroko erreplika egiten hasi dira asteon. Durangoko Azokak irauten duen egunetan zehar amaitzea litzateke asmoa. "Elkarlanean egitea da gure asmoa. Asteon zehar Durangoko Frai Juan Zumarraga institutuko ikasleek lagunduko digute, eta gerora edozein herritarrek parte hartu dezakete", azaldu du Olmok. Egur birziklatuagaz egingo dute, besteak beste. "Mikeldiko idolora herritarrak erakartzea da gure asmoa, batez ere ikasleak eta gazteak. Ikusi dezaten zer den, askorentzat ezezaguna da eta", gaineratu du.

Basarte Euskal Eskultura Azoka ikusgai egongo da abendu osoan

Erakusketa Durangoko Gandarias aretoan (Arkotxa kalea, 6) egongo da ikusgai, abenduaren 30era arte

ESKULTURA • ARITZ MALDONADO

Durangoko Azokak zuen gabezia bat betetzeko asmoagaz, Eskuahaldunak elkarteak Basarte Euskal Eskultura Azoka antolatu du. Bertan, 80 eskultoreren 130 lan inguru erakutsi eta salduko dituzte; besteak beste, Juanjo Abaurrearen, Victor

Arrizabalagaren, Rai Bikandiren eta Felix Alanguaren lanak egongo dira bertan ikusgai eta salgai. "Herri honek gabezia handi bat zuen eskultoreekin. Hutsune hori betetzeko asmoagaz hasi genuen iaz ekimen hau", azaldu du Guillermo Olmos elkarteko presidentek.

Lourdes Iriondo ikertuko dute, Santiago Onaindia bekagaz

Lorea jainagak eta Alexander Gurrutxagak *Lourdes Iriondo, bide-urratzaile proiektua* ikerketa egingo dute

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Lorea Jainagak eta Alexander Gurrutxagak jaso dute XVIII. beka. Lourdes Iriondo artistaren ibilbidea eta ekarpena ikertuko dituzte, *Lourdes Iriondo, bide-urratzaile proiektua*-n. "Bere garaian eragin esanguratsua izan arren, bere ondarea gutxietsia geratu dela esango genuke. Arrakala historiko hori ixtea eta Iriondoren garrantzia nabarmentzea da gure asmoa", azaldu zuen Gurrutxagak. Santiago Onaindiaren aurreko deialdiko bekaduna den

Jon Mentxakatorrek, bestalde, *Euskal ipuin eta leiendak. Antologia eta azterketa* aurkeztu du prentsa deialdi berean.

Santiago Onaindia beka urte birik behin ematen da. Onaindiak utziriko ondarearen eragina azpimarratu zuen Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak prentsaurrekoan: "Onaindiak utzitako ondarearen eragina funtsezkoa izan da Zornotzarentzat, euskal literaturaren esparruan leku nabarmen batean kokatzeko".



Zornotzako udal ordezkariak bekaren onuradunekin.

Gai librean

Isilaraziak XVII

Joan den azaroaren 22an, Ricardo Gutiérrez Abascal (ezizenez, Juan de la Encina) errautsak ekarri ziren Mexikotik Garaira. Ekitaldi honetan parte hartu genuenok argi utzi genuen zeinen garrantzitsua izan den Zubiaurre familiak Garairan eta Durangaldearen alde egin duen lana, kulturari dagokionez. Valentín Zubiaurre aitarengandik hasita (errege kaperako musikaria), Valentín eta Ramón anaiei jarraituta (aski ezagunak dira haien artelanak), Pilar de Zubiaurrerengana iritsi arte. Baina hauen guztien artean, agian, ezezagunena Pilar bera da. Hasieran aipatu dugun Juan de la Encinaren emaztea izan zena. Pilar alaba, arreba, emaztea, laguna, ama izan zen, egia da, baina ez zen hori bakarrik izan. Pilar idazlea, artista, aktibista, arte kritikaria, martxantea, feminista... izan zen.



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Museoa

1884an jaio zen, Garain, baina Madrilen eman zituen urte asko. Bertan, garai-kulturaren pertsonaia garrantzitsu bihurtu zen Pilar, izan ere, bilera intelektualak antolatzen zituen bere etxean. Hauetan parte hartzen zutenen artean zeuden, hala nola Manuel de Falla, José Ortega y Gasset eta Diego Rivera artista eta intelektualak. Hain ezagunak egin ziren bilera hauek ze, "Zubiaurreraren larunbatak" bezala ezagutzen zirela kapitalean. Valentín eta Ramón ere bertan egoten ziren, baina hauen komunikatze-ko zailtasunak zirela-eta (gorrak ziren), ziur asko Pilarren laguntza izango zuten anaiak Madrilgo bizitza kulturalean sartzeko.

Emakumeen eskubideen aldeko borrokalari bezala ere kontsideratu dezakegu Pilar. Londresetik heltzen ziren lehen ideia feministen alde egin zuen. *Lyceum Club Femenino*aren sorreran parte hartu zuen, Bretona Handiko Hirian

sortu zenaren oinordea. Bertan, emakumeen interesak defenditzen ziren, eta, aldi berean, topaleku bat ematen zieten, emakumeen hezkuntza, kultura eta lanbide garapena sustatzen zen eta gizarte-ekintzak antolatzen ziren. Pilarrekin batera aritu ziren Victoria Kent, María de Maeztu, Clara Campoamor eta beste hainbeste emakume.

Bizitza kultural hau alde batera utzi behar izan zuen gerra zibila piztu zenean, eta senarrarekin eta Leopoldo semearekin Mexikora herbestera ziren. Baina ez zuen inoiz Garairekin harremanik galdu, eta urte askoren ostean bere sorterrira bueltatu zen zenbaitetan. Herriko batzuek oraindik akorduan dute Pilarrek sutondoan kontatzen zizkien kontuak. Nik ere egon nahiko nuke emakume handi horren etxeko sutondoan bere bizitza ikaragarri horren hitzak entzuten. Ahotsa ematen.

DOKUMENTALA • J.D.

Arrasateko Besaide Mendizale Elkartek Udalatx mendiaren gaineko dokumentala egin du. Bertan, mendiari buruzko erradiografia zabala egin dute, gaia ikuspuntu askotatik jorratuz, mendiaren eraketa eta eboluzio historikotik hasi, mendiko biodibertsitatetik jarraitu, eta gizakiagaz izaniko hartu-eman desberdinetaraino; hala nola inguruko herrien sorreran eta garapenean izan duen eragina, bertako ustiapena zelakoa izan den, eta abar.

Udalatxek Arrasateren sorreran eta garapenean izan duen garrantziak "pisu handia" du dokumentalean, baina ez da hor bakarrik zentratzen, eta Durangaldeko ikuspegia ere eskaintzen du. "Elorri-rantz, Gongeta aldean, meategi garrantzitsu bat egon zen eta hori

Oraindino ez dago data zehatzik, baina 2024 hasieran Elorrioren proiektatu gura dute

ere jasotzen da", azaldu du Eñaut Iturbe dokumentaleko zuzendaria. Beste adibide batzuk ere ipini ditu: "Geologikoki, Udalatxeko zati handi bat zona karstiko bat da eta zonalde hori Elorrioko alderantz dago. Hidrogeologia aldetik, Aramotz mendilerrotik hasi eta Arrasateraino datozen uren akuiferoa gordetzen du Udalatxek bere azpian. Horrez aginera, kobazuloen katalogo inportante bat ere badu alde horretara". Abadiñoko Gema espeleologia taldeak hainbat esplorazio egin du kobazulo haietan, eta haiek grabaturiko irudiak gehitu dituzte dokumentalean.

Dokumentala ez da kontakizun hutsa, eta kontzientzietan eragin gura du. "Dokumentalak zabalduko duen mezua da badela garaia giza-

Udalatx mendiari buruzko dokumentala Mendi Film Festibaleko sail ofizialean estreinatuko dute

Arrasateko Besaide Mendizale Elkartek egin du ikus-entzunezkoa, eta 2024ko hasieran Elorrioren ere emateko asmoa dute



Ezkerretik hasita: Beñat Iturbe, Olatz Igartua Besaideko presidentea eta Iban Ayesa, dokumentalaren aurkezpenean, Arrasaten.

kiok Udalatx mendiari begirunea izateko eta berau babesteko. Aizkorri parke naturala da, Anboto parke naturala da... baina Udalatx ez'.

Talde lanaren ondorio

Eñaut Iturbe da dokumentaleko zuzendaria, eta Iban Ayesa kamearalaria eta errealizazio arduraduna. Bien lankidetzatik gorpuztu da proiektua, baina bidelagunak izan dituzte; esaterako, Oihan Zubiza-

rrera, gidoian. Dokumentalean entzuten den ahotsa Miren Gaztañaga aktorearena izan da. Gaztañaga Udalatxen paperean sartu da; dokumentalean, mendiak berak lehenengo pertsonan kontatzen du bere historia. Dokumentaleko soinua banda Peru Altubek eta Xabi Agirrezabalak beren-beregi sorturikoa da. "Dokumentala talde lanaren ondorioa da", dio Eñaut Iturbek. Edukiari buruz ere beste

hainbeste esan daiteke. Arloko adituengana jo dute informazio bila: Alvaro Arrizabalaga EHUko historiaurrean aditu eta arkeologoarengana, Ana Isabel Ugalde EHUko historiagilearengana, Martin Arriolabengoa EHUko Geologia Saileko irakaslearengana...

Dokumentala Mendi Film Festibalean emango dute. Ez hori bakarrik. Sail ofizialean sartu dute. "Sorpresa bat izan da eta oso pozik gau-

de", dio Iturbek. Estreinaldia zapatu honetan izango da, abenduak 16, 12:00etan, Euskalduna Jauregian. Ondoren, arratsaldean Arrasateko Amaia antzokian proiektatuko dute. Aurrera begira, Durangaldera ere ekarri gura dute. "Elorrioko Erdella mendi elkarteagaz hartu-emanetan gaude. Oraingoz ez dago data zehatzik, eta datorren urte hasieran Elorrioren proiektatzeko asmoa ere badugu", esan dute.

Deniba Konare durangarrak Espainiako Judo Txapelketan brontzea irabazita amaitu du senior mailan aritu den estreinako urtea

JUDO • J.D.

Kirola edozein dela ere, juniorretatik seniorretarako trantsizioa konplikatu izaten da. Deniba Konare 20 urteko durangarra puntu horretan izan da aurten eta nota onagaz gaudituz du erronka. Esaterako, joan zen asteburuan brontzezko domina irabazi zuen Iruñean lehiaturiko Espainiako Judo Txapelketan.

Ez zen erraza izan. Nekatuta heldu da urte amaierara eta gorputzak ez zion berak gura zuen moduan

erantzun. Ondorioz, ezin izan zuen bere ohiko estilo erasokorra praktikatuz. Txipa aldatu eta beste taktika bat erabili zuen: aurkariari itxaron, pazientzia izan, esperientzia baliatu, bestearen akatsak aprobetxatu... Modu horretara egin zuen brontzea lortzeko bidea. "Futbolearen ez dira partidu guztiak lau goleko abantailagaz irabazten. Batzuetan penalti txandan irabazten dira. Denibak errekurtsioak dituela eta egoerara moldatzen dakiela eraku-

tsi du. Pozik gaude dominagaz, eta baita ikasi dugunagaz ere", adierazi du Iñaki Salas Durango Judo Taldeko entrenatzaileak.

Aimar Aiartzaguena 20 urteko durangarra ere txapelketa berean aritu zen eta ez zuen lehenengo txanda gaudituz. Aurten inoiz baino serioago entrenatzen aritu da eta gehitxoago itxaroten zuen, baina ez zuen zortetik izan. "Hala ere, bide onean dago eta horixe da garrantzitsua", esan zuen Salasek.



Deniba Konare —ezkerretik hasita hirugarrena— brontzezko dominagaz.

Amorebieta Cup umeen torneoko finalak jokatu dituzte barikuan



Olazar Realak izan zen txapelketa.

FUTBOLA • J.D.

Kimu mailako 23 talde Lointek Amorebieta-Etxano Cup nazioarteko futbol 7 txapelketaren 19. aldia jokatzeko dabilta egunotan Zornotzako Txolon zelaian. Urtero legez, goi mailako harrobietako taldeak etorri dira. Bihar azken jardunaldia jokatu dute Athletic, Girondins Bordeaux, Bartzelona, Amorebieta, Vila-real, Eibar, Oporto, Valladolid, Alavés, Real Sociedad eta Osasuna taldeek. Goizean zehar kanporaketa faseak jokatu dituzte. Final-laurdenak 16:00etan hasiko dira, eta finala 18:15ean.

Honako hauek dira prezioak biharko jardunaldia ikusteko: hiru euro bazkideentzat, eta bost euro gainerakoentzat. Txapelketan zehar hainbat sari zozkatuko da, hala nola klubaren kamisetak eta lagun birentzako bazkari bi Boroa jatetxean.

Etorkizuneko Olazar Txapelketako onenek finalerdiak jokatu dituzte

Datozen jardunaldi bietan erabakita geratuko dira Urtezahar eguneko finalistak



Zaldibarko Olazar pilotalekuan jokatu dituzte jardunaldiak.

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Etorkizuneko Olazar Pilota Txapelketa azken txanpan sartuta dago. Gaur gaueko jardunaldian finalerdietako kanporaketak hasiko dituzte eta beste egun bitan jokatu dituzte, abenduaren 14an eta 21ean. Finalak, urtero legez, Urtezahar egunez jokatu dira, abenduaren 31n.

Gaur gauean gizonen lau eta erdiko finalerdi biak egongo dira jokoan: Irribarria U. Amianoren aurka eta Apezetxea Etxeberriaren kontra. Datozen jardunaldi bietan, berriz, gizonen binakako eta emakumeen lau eta erdiko fi-

Emakumeen lau eta erdiko eta gizonen binakako finalerdiak egongo dira jokoan

nalerdiak jokatu dituzte. Abenduaren 14an, 21:30ean, Zabaletak Gaminderen kontra jokatu du kaiolaren barruan. Ondoren, binakako, Zubizarreta-Lizeaga eta Ariztegi-Apeztegia bikoteek neurtuko dituzte indarrak, finalera heltzeko asmoz.

Abenduaren 21ean, 21:30ean, Etxegarai eta Garai lehiatuko dira, lau eta erdiaren barruan, eta

Murua-Cuairan eta J.Alberdi-Gabirondo bikoteak binakako. Kasu honetan ere, irabazleak finalerako sailkatuko dira.

Zuzeneko emankizunak

Zaldibarko Olazar pilotalekura bertaratu ezin direnek Interneten jarraitu ditzakete partiduak, zuzenean. Izan ere, antolatzaileek zuzeneko emankizunak egiten dituzte egunero, eta emanaldi horiek anboto.org webgunearen bitartez ere ikusi daitezke. Aritz Gallastegi kazetariak egiten ditu esatari lanak, eta Enrike Agirrebeitia aritzen da komentaria.

Mendibeltz igoera postuetan heldu daiteke urte amaierara areto-futboleant

ARETO FUTBOLA • J.D.

Durungaldeko areto-futbol taldeetatik Mendibeltz da ondoen dabilena. Durangoko kluba Bizkaiko Maila Goreneko bigarren tokian dago. Igoera postuetan dago une honetan, eta horrela amaitu dezake urtea. Jardunaldi bi falta dira 2023ari errematea emateko, eta eurretari batean irabazi egin gura luke postuari eusteko. Lehenengo aukera zapatuan izango du, 16:00etan, Zorrotza-

Mailan golik gehien sartu duen Zorrotza Zabalgarbi taldearen kontra jokatu du, zapatuan

ko Zabalgarbi taldearen kontra Landako Kiroldegian jokatu duen partiduan. Talde bilbotarra bosgarren tokian dago eta talde arriskutsua da erasoan. Bederatzi partidutan 33 gol daramatza, beste inork baino gehiago. Ia golen erdiak jokalariren artean sartu dituzte: Asier Ansorenak 8 gol sartu ditu, eta Unai Barrasak 7. Mendibeltzen partetik, Mikel Rodriguez (6 gol) eta Iker Sarriugarte (5 gol) dira taldeko goleatzaile nagusiak.

Jokaldia

Kick boxing eta boxeoa

Nire lehenengo kolaborazioa da gaurkoa eta zilegi deritzot neure burua apur bat aurkeztuz hasteari. Hogei urte nituenetik gaur arte, hamabost urtez, kickboxinga eta boxeoa praktikatzen nabil Durangon; zortzi urte ikasle eta zazpi urte irakasle. Arte martzial eskola askotan ibilia naiz, baina nire ilusio nagusia beti izan da Laureano Lararekin entrenatzea, eta bizitzak nahi hori errealitate bihurtu dit.

Lehiatzearen falta sumatu arren, betidanik oso gustuko izan dut irakaslea. Niretzat gozamena da ikasitakoa belaunaldi berriei irakastea eta formakuntzak ematea federazioak zein gure taldeak antolatzen dituen kickboxing, muay thai edo boxeoa ikastaroetan, eta betiere Lara maisuaren ondoan. Laureano Larak 45 urte inguru daramatza



Dani Nuñez Morales
Kick-Boxing eta Boxeoa

karate eta kick-boxing klaseak ematen Berrizen. Hiru belaunaldi igaro dira bere eskuetatik.

Indar Xport Kirol Kluba 2007an sortu genuen Elorrioren, Lauareano Lara irakasle dela, eta ni irakasle nahiz zuzendari. Txikibox, kickboxing eta K1 klaseak ematen ditugu. Aurten gure taldeko bi ikasle Ermua kickboxing eta muay thai klaseak ematen hasi dira Jator gimnasioan, eta lan ederra egiten ari dira hainbeste maite dugun kirola zabaltzen.

Laureano eta biok Durangoko Zirkon gimnasioan ere bagabiltza kickboxing, K1, muay thai eta txikibox klaseak ematen. Beste mota batzuetako ikastaroak ere baditugu gimnasioan: boxeoa, jiu-jitsu, defentsa pertsonala, Krav Maga eta MMA. Modalitate eta kirol hauek bere instruktore pertsonalak dituzte. Gimasioa goiz eta

arratsaldean dago zabalik, 160 ikasle inguru daude eta eurretatik portzentaje handi bat neskak dira. Betidanik izan ditugu neska asko gure taldean baina azkenengo urteetan kopurua areagotu egin da.

Urtean zehar 300 kirol lizentzia inguru ateratzen ditugu, Elorrio, Durango, Berriz eta Ermuko eskolekin batera, kasu honetan ere portzentajea altu bat emakumeena delarik, eta kategoria eta modalitate askotan Euskadiko eta nazioarteko txapelkun geratu diren kirolariak hezi ditugu. Baina emaitzaz haratago, kirol honetan sustatzen diren alderdirik garrantzitsuenak diziplina, errespetua eta balioak dira. Zorritzarrez, kirol hau kanpotik baino ezagutzen ez duenak bestelako irudi bat izan dezake. Zutabe honetatik irudi horri buelta ematen eta gure kirolaren edertasuna bistaratzen saiatuko gara.

Okm:

batzen gaituen distantzia

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA


- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan



> anboto
kide

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15 eko deskontua saio solteetan

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)



***Egin zaitez ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!***



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

SASIKOA: 131 m². 3 logela,, 2 komun, sukaldea terrazarekin eta egongela handia. Eguzkitsua. Ezin hobea. Garaje itxia eta ganbara. Bizitzen sartzeko moduan. **310.000 €.**

FAUSTE BEKOA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela terrazarekin. Trastelekua eta garaje handia. **C.E.E=E 250.000 €**

IURRETA: 3 logela eta komuna dutxarekin. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 155.000 €**

// ALOKAIUAN EROSTEKO AUKERAREKIN

ABADIÑO: 150 m²-ko terraza. Erdi berria. 94 m². Garajea eta trastelekua aukeran. **C.E.E=E 259.000 €**

ZALDIBAR: 80 m². Erdialdean. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=F 175.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

BARRENKALEA: 111 m². Berriztuta dagoen duplexa. 3 logela eta 2 komun. Ganbara ikuspegiakin. **C.E.E=G 206.000 €**

ANTZO ESTEGIZ: 94 m². 4 logela, 2 komun eta egongela balkoiarekin. **C.E.E=F 227.000 €**

ANDRA MARI: 85 m². 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=F 255.000 €**

ERRENTXU: 85 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E=F 187.000 €**

ZALDIBAR: 70 m². 3 logela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan. Inbertsio moduan egokia. **C.E.E=E 105.000 €**

OTXANDIO: 80 m². 80 m²-ko beheko solairuak. Txokoa, garajea, bildegia egiteko aukera. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 90.000 €**

DURANGO: 118 m². 4 logela, 2 komun eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta aparkaleku zuzena. Txoko komunitarioa eta solariuma. **C.E.E=E 320.000€**

MATIENA: 3 logela, komuna jakuziarekin, bainugela eta sukalde jantzia. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea. **C.E.E=E 180.000 €**

MIKELDI: 85 m². 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. **C.E.E=E 226.000 €**

JUAN DE OLAZARAN: 85 m². Guztiz jantzia. 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta trastelekua. **C.E.E.B 382.000 €**

LANDAKO: (autobus geltokia) 102 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. **330.000 € C.E.E=E**

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 142.500 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Errentxu. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. balkoia.

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatzeko. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Askatasun etorbidea. 3 logela, sukaldea, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

ABADIÑO
ABADIÑO: Etxeazpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

BERRIZ
BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abehete bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 60 m²
2 logela
MUSIKO ALTUNA: Egongela-sukaldea jantzia, 2 logela, komuna eta eskegitokia. Etxe osoak kanpora ematen du, hego-mendebaldea. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak, erdigunetik gertu. 2022 urtean berriztatua. 4. solairua igogailurik barik.
160.000 € C.E.E: F



DURANGO 78 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Egongela, sukaldea, 2 logela, 2 komun, eskegitokia eta halla. Etxe osoak kanpora ematen du (iparraldea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Herriguneko sarrera eta irteeratik gertu. garajea eta trastelekua. Banaketa berrirako aukerarekin.
250.000 € C.E.E: E



DURANGO 60 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: ERAIKUNTZA BERRIA, ATIKOA. Egongela, sukaldea, 2 logela, komuna eta eskegitokia. 40 m²-ko 2 terraza. Estreinatzeko. Lehenengo materialak. Etxe osoak kanpora ematen du (hego- iparraldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Herriguneko sarrera eta irteeratik gertu. Trastelekua.
290.000 € + BEZ C.E.E: A



DURANGO 86 m²
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: (2012. urtean eraikia) Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Etxe erdiak kanpora ematen du (ipar-hegoa) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. 22,4 m²-ko garajea eta 8 m²-ko ganbara. Bizitzen sartzeko moduan.
315.000 € C.E.E: Bidean



MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,06 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzeko.
280.900 €-tik aurrera



DURANGO 90 m²
3 logela
FAUSTE BEKOA: 2003. urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia eta 2 komun. 55 m²-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Argitsua. Zonalde lasaia, herriko sarrera batetik gertu, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobea. Garajea eta 13,5 m²-ko trastelekua.
319.000 € C.E.E: E

//DURANGO

ANTSO EZTEGIZ KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatzeko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ
MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeo baserria lurzorugaz. **280.000 €**

//GARAI
MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA
DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

//IZURTZA
ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 / E.E.Z=E**

//OTXANDIO
ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR
BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO
Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI
Informazio gehiago bulegoan.

//ETXEBIZITZAK ALOKAGAI
Informazio gehiago bulegoan.

Botikak

BARIKUA, 8 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 9 · 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA,
TRANABARREN 15. - ABADIÑO

SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 10 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 11 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, S
AN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 12 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 13 · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 14 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Berrizko **Lier Belerdasek** 2 urte egin zituen abenduaren 3an. Zorionak bere anaia Gari, lehengusina Izaro eta, batez ere, amama Maribiren partez.



Zorionak, **Lucia!** 15 urte egin zenituen abenduaren 2an. Espero dugu ondo pasa eta gozatu izana. Gure bigarren kapitainarentzat musu bi etxekoan partez.



Abenduaren 1ean **Manexek** urteak egin zituen. Zorionak, Manex! Elorriotik aitita, amama eta Eneritzen partez. Gora gure txapeliduna!



Zorionak, estrellita! Tenerifeko kuadrillakuen partez. Besarkada bat!



Zorionak, **Manex!** 3 urte egin dozuz! Jarraitu danborrari egurre emoten! Etxekoek asko maite zaitugu!



Zorionak, **Unai.** Oso ondo pasa eguna. Muxu potolo bat familiaren partez.



Zorionak, bihotza... 4 muxu potolo etxekean partez!



Anek 10 urte egin zituen azaroaren 30ean. Egun polit bat pasatu zuen lagunekin eta familiarekin. Zorionak etxekean partez.



Zorionak, **Irati Bengoetxea,** Espainiako Orientazio Txapelketan 12 urtez azpiko kategorian 3 domina irabazteagatik. Eta zorionak, **Ekain Bengoetxea,** 10 urtez azpiko kategorian, erreleboetan, lortu duzun brontzeagatik. Zorionak, txapelidunak!

Eskelak



Pello Rezabal Zubizarreta



Alaietan alai, lagunen lagun,
beti irrifartsu, zailenari argia eta indarra
jartzen zeniona, perretxikotan trebea,
gure gurea eta
betirako maitea.

Ahaztezina zara guretzat, Pello.

GORA GU TA GUTARRAK!

Aranbarri familia

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 6° / 15° ☁

ASTELEHENA ↓ 11° / 18° ☁

EGUAZTENA ↓ 7° / 12° ☁

DOMEKA ↓ 11° / 19° ☁

MARTITZENA ↓ 10° / 17° ☁

EGUENA ↓ 6° / 9° ☁

"Alkohol gutxi igartzen zaien koktelek funtzionatzen dute ondoen"

Ander Diezek Bizkaiko Bartenderren Elkarteak antolaturiko Bizkaiko Kokteleria Txapelketa irabazi du; orain 11 urte murgildu zen koktelen munduan, Basque Culinary Centerren zegoela



Ander Diez Sanz
Koktel egilea
DURANGO | 1993

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Koktelen munduan inguruko erreferente izan guran, Monkey's Lab tabernak orain urte eta erdi ekin zion bideari ehuneko ehunean. Ander Diezek koktelak sortzeko sukaldaritzako eta kokteleria klasikoko tendentziatik eta sare sozialetatik edaten du, eta interesgarria izan daitekeen edonogaz hartuko luke koktel bat. Abenduaren 27rako koktel tailerra prestatu dute.

Zer hartu behar da kontuan koktel bat prestatzeko?

Lehenengo eta behin bezeroa ezagutu behar da, bere gustuak, eta, gero, momentu horretan zer hartu gura duen jakin. Ez da berdina bazkalduta egotea edo ez, edari in-

dartsuak gustuko izatea edo ez, alkoholik bako koktela gura izatea... hori jakinda, osagaiekin jolasten hasi gaitzke.

Momentu bakoitzerako koktel bat dago ala edozein momentu da ona?

Guk apardun edaria, cava adibidez, bazkaldu ondoren hartzen dugu: postreagaz, kafeagaz.... Herrialde Katalanetan, ostera, aurretik edaten dute eta otordu guztian zehar jarraitzen dute edaten. Kulturari oso loturiko kontua da. Dena dela, momentu bakoitzerako pentsaturiko koktelak daude. Bermuta lako janaurreko koktelak daude, ondoren jango duzunaren zaporean eragingo ez dutenak, edo bazkal-afalosterako digestio-laguntzaileak,

Koktel bat prestatzeko, lehenengo eta behin bezeroa ezagutu behar da, eta, gero, momentu horretan zer hartu gura duen jakin

gozoagoak direnak; eta zapoak gehiago irauten du ahoan... Trago luzeak edo freskagarriak ere badaude: Bloody Mary-a edo mojitoa, hurrenez hurren. Koktela beroa ere izan daiteke; kafe irlandarra, adibidez.

Koktel lez identifikatzen ez ditugunak aipatu dituzu.

Bai, askotan uste dugu kokteleria alkohol gogorretara mugatzen dela. Ez da horrela, koktelen munduak gauza piloa batzen du.

Koktelak edonorentzat dira?

Bai. Bakoitzak bere gustuak ditu, baina ziur zerbait gustukoa topatuko dugula.

Bizkaiko Bartenderren Elkarteak antolaturiko koktel txapelketa irabazi duzu, aurten bigarren.

Aspaldi ikusi bako lagun arteko egun polita izaten da; gainera, lehia osasuntsua izan dadin ahalegintzen gara. Besteen lana ikusteko aukera dugu, eta, teknikari begiratuta, esango nuke batek baino gehiagok egin zutela nik baino hobeto. Sorpresa hartu nuen.

Kokteleriaz bizi gura genuke, baina, momentu honetan, tabernako eguneroko lana dugu erronka

Zein da erronka orain?

Kokteleriaz bizi gura genuke, baina momentu honetan tabernako eguneroko lana dugu erronka.

Modan dago kokteleria?

Demokratizatu egin dela esango nuke. Sorpresaz ikusi dugu jende gaztea ere animatzen dela gauzak probatzera, eta oso jende nagusia ere bai. Orain urte batzuk, koktelak adin tarte batez zeuden lotuta.

Zeintzuk funtzionatzen dute ondoen?

Alkohol gutxi igartzen zaien koktelek. Edari zuriak dira gehien kontsumitzen direnak. Hala ere, aurreritzi mordoak dugu, alkohol eskasa hartu dugulako, kalte egin digulako... baina gama desberdinak daude. Zer kontsumitzen dugun jakitea da garrantzitsuena, alkoholaren osagaiak, jatorria...

Zein da zure gustukoena?

Egurragaz interakzionatzen dutenak gustatzen zaizkit gehien. Old Fashioned, adibidez. Geroago eta joera handiagoa dut alkoholik gehien duten horiek hartzeko. Horiek dute matiz gehien, eta edan ahala zapoera aldatuz doaz.

Lau-hortza

Karolina Suarez Borges
Kazetaria



Badator Azoka

Gainean dugu Durangoko liburu eta disko azoka, Euskal Herriko kultur adierazpenen artean garrantzitsuenetarikoa. Tradizioz sortu dugu beharra euskal kulturaren aldeko konpromiso berresteara, ekimen handiaren parte izatearena; egia da, gizartean oso errotuta dauden beste mugimendu batzuk bezala, giro euskaltzale, abertzale eta ezkertiarretatik sortu zela azoka, zoriarekin aldarrikapen eta sorkuntza transzendental ugari urte haietan.

Azken urteotan, ordea, estatistikek eta ikerlanek erakutsi digute euskararen erabilera, bere ezagutza maila, euskalkien egoera, eta gure kulturaren erroen ezagutza amildegian behera doazela; euskal sortzaile gehien, euskalduntze plan-publiko gehien, euskal kulturaren aldeko erakunde, talde zein enpresa gehien daukagun momentuan eta... Azoka gero eta arrakastatsuen den garai beretan, hain zuzen.

Paradoxa hala, kapitalista eta neoliberalak den itsaso zabalean olatu handi bat da euskal kultura. Globalizazio betean teknologia berrietara egokitzen dabilen ur multzoa, korrante berriek sortzen dituzten erreketara ere iritsi behar dena. Ahaztu gabe, belaunaldi berriek bertan uger egitea nahi baldin badugu behintzat, korrontearen kontra egiten ere jakin behar dela. Kontu handiaz, noski; sekula gizartearen aurretik, euskal kultura izan dadila beti jendartearen isla. Gizartea bera aldatuz kultura biziberritzeko, eta ez alderantziz. Gogoratuta euskal kultura ez dela eskuragarria herri honen gehiengo batentzat; beraz, anitzaren aniztasunean tentuz heldu behar diogu pareko erronkari.

ZU NON, HAN DA!
58. DURANGOKO AZOKA

AURKEZPEN SOLASALDIAK

Abenduak 12 · 19:00
Miren Agur Meabe eta Antxiñe Mendizabal "Itzulerak"
Hitz liburu denda (Durango)

Abenduak 14 · 18:30 | **Yolanda Larreategui "Putu gorda"**
Arteka liburu denda (Durango)